



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

www.ttipi.net



**Fernando ETXEGARAI**  
Bosgarren txapela Sarako kontrabandisten Lasterketan → 10

2010eko irailaren 2a | XXX. urtea | 525. zenbakia

**Bestak** Arraioz, Elbete, Eratsun, Oiz, Sara...

**BERA → 10**  
Gure Txokoa elkartearen hauteskundeak

**SUNBILLA → 16**  
Artzain amerikanoen besta irailaren 19an

**NARBARTE → 26**  
Elkarbizitza arazoak familia batekin

**BAZTAN → 35**  
Leire Ramos BKTtik Itxakora



## Erleen ziztadak sendagai ere badira

Gaixotasunak sendatzeko erleen ziztadek uzten duten toxinak edota ezta, polena, propoleoa eta erregina-jelea erabiltzeari deitzen zaio apiterapia. Medikuntzaren ikuspegitik, ikerketa batzuk terapia honen eragina (batez ere ziztadena) zalantzan jartzen badute ere, bertze batzuk, aldiz, eragin positiboak onartzen dizkiote artrosia, artritis eta ziatika sendatzeko. Jaione Irisarri Elgorriagako apiterapeutak honen inguruko azalpenak eman dizkigu.

**ELKARRIZKETA → 3**



**Jon KANFLANKA** | Leitzako segalaria

**KIROLIZKETA → 42**

**«Sega ez da bakarkako kirola»**

«Fisikoa, teknika eta erreminta ona». Horiexek dira Jonen iritziz segan ongi aritzeko behar direnak. Bestalde, «talde lana» ere azpimarratu digu. «Txapela bati bakarrik ematen zaio, baina gehiago beharko lirateke».

**ERREPORTAJEA → 4-5**

**www.ttipi.net**  
**itxuraberritua**

Diseinua berritzeaz aparte, orain garbi eta arinagoa da, atal berriak ere erakusten ditu TTIPI-TTAPAREN web orriak uztail hasieraz geroztik. Nabarmen-tzekoak diren berrikun-tzen artean blogak dira aipagarri, zerbitzu osa-garriak ahaztu gabe.

# Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Ind. - 20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98  
informacion@lasao.com • www.lasao.com

Altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe

*"Nafarroan estimatzen den altzaria"*



**%50** beherapena koltxoi ekologikoan

## Isidoro Fagoaga

### BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA



AURREMATRIKULA:  
Irailaren 1etik 10era

BULEGO ORDUTEGIA:  
9:30-13:00

Animatu eta etor zaitez musikaz gozatzera  
Inoiz ez da berandu!

### Berako Udal Musika Eskola

[www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola](http://www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola)  
Legia, 26 • Bera • Tel.-Fax: 948 631 205 • [musikaeskola@berakoudala.net](mailto:musikaeskola@berakoudala.net)



Erleak guregana hurbiltzea sobera maite ez badugu ere, erraten denez, 500 gaixotasun baino gehiago sendatzeko gai dira. Eta bada erleak eta honen produktuak osasunerako

erabiltzen dituen teknika bat ere: apiterapia Euskal Herrian ez dago hagitz hedatua eta esku bakarrarekin kontatzekoak dira dauden apiterapeutak, baina horietako bat Elgorri-

gakoa da. Ikastaroak egin eta titulazioa ere ateratu zuten Txilen, eta orain Doneztebeko Kimetz belar-dendan hartzen dituzten gaitzak apiterapiarekin sendatu nahi dituztenak.

Jaione IRISARRI | Elgorriagako apiterapeuta

# «Gorputzeko desoreka energetikoa somatu eta hor ziztatzen dute erleek»

G. PIKABEA | ELGORRIAGA

## Nolatan sartu zinen erleen munduan?


2006an erleak paratzeko ikastaro bat egin nuen Fraisoron eta ikaragarri gustatu, eta liburu batzuk irakurtzen hasi nintzen. Baionako Unibertsitatean apiterapiari buruzko ikastaro bat ere egin nuen eta teknika izugarria zela ikusi nuen. Informazio bila hasi eta Txilen titulazioa ematen zuten eskola bat topatu nuen. Harat joan eta han ikasi nuen teknika eta titulazioa ere han ateratu nuen. Baina azken finean, egunerokoan ikasten da, bakoitza desberdina delako.

## Zertarako balio du apiterapiak?

Gaixotasun aunitzetarako balio du, baina hemen gehien tratatzen direnak artrosia, artritisa, ziatika, diska etendura eta gerrimina dira. Ginekologiako gaitzak sendatzeko ere balio du, eta dermatologia arazoak, psoriasis, ekzemak, traumatismoak eta era guztietako oinazeak ere bai.

## Zer moduzkoa izaten ari da erantzuna?

Ona. Mina kentzen du eta antinflamatorioa da, sistema immunologikoa martxan paratzen du... Ez dira erleen ziztadak bakarrik erabiltzen. Bertze produktuak ere bai: ez-tia, erregina-jelea, propoleoa, polena.. Horiek ere hainbat ezaugarri dituz-



ARGAZKIA: TTUPI-TTAPA

Jaione Irisarri pintzarekin erleari eusten diola.

te eta kasuaren arabera, batzuk edo bertzak gomendatzen ditut.

## Apiterapia medikuntza gisa erabil daitekeela iruditzen al zaizu?

Kuban, gizarte segurantzaren bame dago eta ospitalean apiterapia kontsultara joan daiteke. Hemen ez da ezaguna, baina Txile, Venezuela, Japonia eta AEBetan aunitz erabiltzen da. AEBetan, erraterako, 50.000 lagun baino gehiago ari dira apiterapiarekin lanean. Esklerosi anizkoitza lantzen ari dira eta sendatu ez da eginen, baina hobetu bai.

## ERABILGARRIA

«Gaixotasun askotarako balio du, baina hemen gehien tratatzen direnak artrosia, artritisa, ziatika, diska etendura eta gerrimina dira. Ginekologiako gaitzak ere bai»

## Ba al du kontraindikaziorik?

Kontraindikaziorik haundiena alergikoa izatea da, eta horregatik alergija proba eskatzen dut beti. Hagitz jende gutti dago alergikoa dena, eta nahiz eta nik horren kontrako txertoa izan, ez diet momentu txarrik pasarazi nahi. Insulinaren menpeko diabetikoek, giltzurrunetako gutxiegitasuna dutenek eta haurdun daudenek ere ezin dute. Kasu guttitan dago kontraindikaturia. Erleak zituen jendea luzaroagoan bizi zela kontraturatu hasi ziren azter-

tzen, eta erleen ziztandengatik zela ikusi zen.

## Zer egiten duzu zure kontsultan?

Normalean elkarrizketa bat egiten dugu. Apiterapiari diagnostikatzen ikasi ez dugunez, diagnostikoarekin etortzeko eskatzen dut. Halere, kinesologia ikasten nabil eta diagnostikatzen ikasten ari naiz. Bentosarekin masajea emateko ikastaroa ere egin nuen eta masajea ayurvedarena ere bai. Emozionalki eta burutik ere gaitza aunitz etortzen zaizkigulako ikasi ditut. Eta behin kontsultan, pintza berezi batzuekin erlea hartu, eta gaitzaren arabera, puntu jakinetan uzten dut. Apiterapia egiteko apipuntura teknika erabiltzen dut, eta erleak apipunturako puntuetan ziztatzen du, baina ez diet ezten guztia hor uzten. Eztena hartu eta hainbat punturara banatzen dut. Gainera, erleek gorputzeko desoreka energetikoa ere somatu eta hor ziztatzen dituzte. Berez, gorputza bera sendatzen da erleen laguntzarekin.

## Erleak desagertzen ari direla erraten da...

Eta hagitz kaltegarria izan daiteke. Erraten dute, erleak desagertuta, bi urtetan mundua akituko dela. Garai batean ia base-ri edo etxe guztietan izaten ziren erleak, baina orain ez. Jendea erleak jartzera animatuko nuke.

INTERNET → WEBGUNE BERRIA

# Itxuraberritua gelditu da [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) atari digitala

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik gabe gelditu da aurten Ttipi-Ttaparen web orria

Web orri argiagoa eta parte hartzeko aukera gehiago eskaintzen dituena. Halaxe da [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) atari digitala. Diseinu berrituarekin, uztail hasieratik dago ikusgai eta itxura txukunagoa eta irakurtzeko errazagoa izateko egokitu da. Bide batez, parte-hartzea ere bultzatu nahi izan da.

**TTIPI-TTAPA | ETXALAR**  
Duela 14 urte egin zuten TTIPI-TTAPAK Internetarako saltoa, 1996ko uztailaren, zehazki. TTIPI-TTAPA izan zen, gainera, edukiak sarean paratu zituen lehendabiziko euskal hedabidea. Eta horrexegatik hartu zuen 1997an Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, *Komunikabideen Berrikuntza Saria* deiturikoa.

Baina Interneten gauzak momenturo aldatzen ari direnez, 2006an ere berrikuntza batzuk egin ziren web orrian. Ordura arte aldizkari edukiak sarera bolkatu baino ez baziren egiten, 2006an eguneroko albisteei segida ematen hasi zitzairen. Gisa beran, orain gure artean ez dagoen TTIPI-TTAPA Tebistako eguneroko albisteen laburpena ikusteko aukera izaten zen. Kultur agenda, aldizkari edukiak, berrikuntza, Merkatu Ttikia, urte-

betetzeak... Horiek guztiak orduan paratu ziren martxan.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)-en bertsio berriak hori guztia ere badu, baina aurkezteko modua eta itxura aldatu egin dira. Eguneroko albisteen segida egiten da orain ere, baina azala txukunago antolatua dago eta lehen baino eduki gehiago dauka. Eguneroko albiste garrantzitsuenen titularrak ageri dira lehen orrian, baina gainera klikatuz gero, azalpena ere irakur daiteke, argazki hornitua. Iruzkinak egiteko aukera ere bada. Hemerotekako berriak ere kontsulta daitezke, eta eskuineko zutabearen, urtebetetzeak, Merkatu Ttikia eta eguneroko agenda modu errazean ikusteko aukera dago.

Parte-hartzea bultzatu nahian, norberak bere proposamenak bidaltzeko modua ere badu webguneak, baita urtebetetzeak eta Mer-



[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) atari digitala itxura berriarekin.

ARGAZKIAK: WWW.TTIPI.NET

katu Ttikia kontratatu TTPA aldizkaria.pdf for- teke. Eta eguraldia eta errepideen inguruko in-





ARGAZKIAK: WWW.TTIPI.NET

formazioa ere eskaintzen da, Ttipi txartelaren inguruko xehetasunekin batera.

#### BERRIKUNTZAK

Edizio digital honen berrikuntza nabarmena, halere, blogak dira. *Iritzia, bota bertsoa eta 11 galdera labor* blogak ditu [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)-ek. *Iritziaren* blogean, kolaboratzaileen eta bertze iritzi-emaileen artikulak aurkituko dituzue, eta iruzkina egin nahi izanez gero, egin daiteke. *Bota bertsoaren* tartea, izenak berak dioen bezala, bertsolaritzari eskainitakoa da, eta *11 galdera labor*-ena, TTIPI-TTAPA aldizkarian izen hori daraman sailaren parekoa. Eta sare sozialari lekua eginez, Facebook-en ere hortxe dago TTIPI-TTAPA.

Informazioaz aparte, bertzelako edukia eta aukerak dituen webgunea da, beraz, [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)-en edizio berria. Eta Nafarroako Gobernuak TTIPI-TTAPAren web orriari dirulaguntzarik eman ez badio ere, lanean segitzen du egunero-egunero ahalik eta eduki interesgarrienak modu argian eskainiz.

#### MUNDU ZABALEAN

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Leitzaldea eta Xareta ingurukoak dira [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)-en erabiltzaile gehienak. Baina hemendik kanpo ere baditu bi-

**BERRIKUNTZA**  
Blogak dira web orri itxuraberrituaren berrikuntzarik nabarmenenak. *Iritzia, bota bertsoa eta 11 galdera labor*-en blogak dira.

**DATUA**  
**0**  
EURO hartuko ditu [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)-ek aurten Nafarroako Gobernutik. Alegia, ez du dirulaguntzarik jasoko.

**DATUA**  
**93**  
HERRIALDETAKO bisitak hartu ditu [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)-ek azken bi urteotan.

sitariak. Google Analytics kontatzailearen arabera, 2008ko irailetik honat mundu osoko 93 herrialdetako bisitariak izan ditu: Euskal Herria, espainiar estatua, frantziar estatua, AEB, Alemania, Mexiko, Erresuma Batua, Herbehereak, Argentina eta Txilekoak bereziki. Urte honetan, berriz, 57.914 bisita izan ditu [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)-ek eta guztira TTIPI-TTAPAren

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) atari digitalaren nabarmentzeko berrikuntzak blogak dira. Irudiotan, *bota bertsoa, iritzia eta 11 galdera labor*-enak ageri dira.

#### NAFARROAKO GOBERNUAREN 2010EKO DIRULAGUNTZEN ANALISIA

## Irratientzat laguntza handiagoa osotara kopurua ttititu bada ere

J. IRIGOIEN | ETXALAR

Gobernuak irizpideak aldatu ditu 2010eko dirulaguntzak banatzerakoan eta baita kopuruak ere. Aurten 220.000 euro banatuko ditu denetara (2004an 309.642 euro ziren), eta diruak banatzerakoan ere, irizpideak aldatu egin ditu, nabarmen gainera. Ondorioak dirulaguntzek izan duten bilakaeran ikusten ahal dira garbiago. Garbi gelditzen ez zaiguna da zein den aldaketa honen justifikazio eta arrazoia.

#### IRRATIEK 2008AN BAINO %41,18 GEHIAGO HARTUKO DUTE 2010EAN

2010eko ebazpena hartuta deigarri egiten da ikustea dirulaguntzaren kopuru absolutoa murriztu den arren, 2008an baino 20.000 euro guttiago, irratien artean 2008an baino 37.296 euro gehiago banatu direla 2010eko dirulaguntzetan. Horrela, bada, 92.270,92 euro hartuko dituzte aurten irratiek, 2008an baino %41,18 gehiago, 2008an 53.280,00 euro hartu baitzuten.

#### ALDIZKARIEK %17,54 GUTIAGO

Aldizkarien kasuan, aldiz, kontrako jokabidea hartu du Euskara-

bideak. 2008an 90.576,00 euro banatu zituen eta, aurten, 76.085,72 euro onartu ditu (%17,54 gutiago).

**Kasuak banan-banan ikusita**, eta 2008an aldizkari bakoitzak jaso zuenarekin alderatuta, **TTIPI-TTAPA da, diferentzia handiarekin, kalteuen atera dena.**

#### INTERNETEKO EDIZIOENTZAT %76,87 GUTIAGO

Bitxia da atal honetan Euskarabideak hartu duen erabakia: bakar bakarrik Guaixe.net-i eman diote dirulaguntza, diotenez, gainerakoek "nahikoa hedapenik" ez dutelako. Kasu honetan ere, zalantza serioak sortzen dizkigu hedapen datuak egiaztatzeko Euskarabideak erabili dituen kriterioen sendotasunak.

#### TELEBISTENDAKO BAT ERE EZ

Gaur egun Nafarroan emisio digitaleari aritzeko lizentzia duen telebistarik ez dagoenez, hutsik utzi dute telebistendako dirulaguntzak. Alabaina, berriki sinatua dute hitzarmen bat Xaloea Telebista eta Euskarabidearen artean 10.000 euroko dirulaguntzarekin, ikusentzunezko materialetan 100 ordu uztearen truke.

239.944 orrialde izan dira ikusiak. Eta eguneko bisita kopurua 330-en inguruan ibiltzen da, batzuetan guttiago, bertzuetan gehiago.

#### DIRULAGUNTZARIK EZ

TTIPI-TTAPAren web orria Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik gabe

gelditu da aurten. Gobernuaren arabera, «eskatzen den guttieneko bisitari kopururik ez duelako».

TTIPI-TTAPA aldizkariak, ordea, joan den urtean ez bezala, 13.146,88 euro hartuko ditu, baina 302.910 euroko aurrekontu bati aurre egiteko. Esku-

aldeko hedabideei dagokienean, TTIPI-TTAPAren dirulaguntza bera hartuko du Leitzako Karrape irratia ere –aurrekontua 35.000 eurokoa du– eta Xorroxin irratiantzat, berriz, 24.650 euro bideratuko dira –aurrekontua 198.852,04 eurokoa du–.



**Nire txanda**  
Ruben GARATE

## Uda artearekin

Uda ailegatu da, edo dagoeneko akitzen ari da, eta urtero bezala, Baztanen eta inguruko herrietan pintura erakusketaz erakusketak ibilbide luze eta zabalak egiteko aukera daukagu. Ikustekoa da zenbat edertasun topa ditzakegun erakusketak ugariak bixitatzen baditugu. Zer erran daukagun artistetaz, ez diet izena paratuko, seguru bat baino gehiago bazterrean utziko nukeela eta ez legoke ongi. Ez da harriztekoa hemen margotzeko afizioa izatea, izan ere, kanpotar batek erraten zidan bezala, «bailara honetako txoko bakoitza margotzen ahal den koadro polit bat da». Egun euritsu, triste eta gris horietako batean, ez dakigun zer egin, «Artearen libildia» egitea interesgarria eta polita izanen litzateke, baita kultur aldetik aberasgarria ere. Baztanen eta Bidasoa osoan ditugun herri zoragarri horietako bat bisitatu bidenabar.

**Hemen eskubideak eskatu egin behar ditugu eta horrek ez du ostatu ematen diguna leku onean uzten**

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Normaltasunera bueltan

Utikan eguzkia hartu aitzinetik eta ondotik eman beharreko kremak eta hondartzatik bueltan behatz artekin harea ezin kenduz ibiltzea. Akabo izerdi arteko siestak. Berriz ere iratzargailuaren tirrin goxoaren arabera ernatuko gara, umeak ikastetxera eraman eta (posible duenak) lanera joateko. Oporretako moztorra kendu eta urte osokoa jartzeko tenorea da. Afiii!!!!

## Nabarmentzekoak



**Irati OTXOTEKO**  
Lesakako txirrindularia

Bartzelona Horta belodromoan kadete mailan pistako Espainiako txirrindularitza txapelketan brontzezko bi domina eskuratu zituen, 500 metroko proban eta abiadurakoan.



**Xabier MINDEGIA**  
Beintza-Labaiengo aizkolaria

Euskadiko bigarren mailako aizkolaria txapelketaren finalean izan den, kanporaketako denborarik onena eginda. Berekin batea, Oihan Larretxea eta Ander Erasun ere sailkatu dira.



**Francisco Javier MEOKI**  
Elizondoko txirrindularia

Master 50 kategorian Espainiako txapelduen suertatu zen uztailaren 25ean Segovian. Espainiako Kopa bitan irabazia bazen ere, txapelketa lehen aldiz irabazi du.

**Atzera begira → 1995.09.07 / TTIPI-TTAPA 165. zbk**



### Bere nahia betez, Berako lurrak hartu zuen Julio Caro Baroja

1995eko abuztuaren 18an hil zen Beran Julio Caro Baroja, Pío Baroja idazle ezagunaren iloba, 80 urte zituela. Madrilen sortua bazen ere, lotura estua izan zuen Barojatarrek Beran duten Itzea etxearekin eta bere nahia betez, Berako lurrak hartu zuen betirako Julio zena. Josu Goiak zioenez, «bere heriotzarekin maisua eta laguna galdu dugu. Gure herriko ohiturak berreskuratzen irakatsi zigun, historia ezagutzen, eguneroko detailtxoetan ohartarazten». 1980ko argazkian, Euskal Besten Mendeurrena zela eta, Josu Goia eta Manuel Iriarte Juliori plaka eta zilarrezko domina ematen ageri dira.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

# Abertzaleen akelarrea leize-zuloan?

Juainas PAUL ARZAK

**B**eti susmagarria iruditu baitzait **akelarrearen** bidea, zer esanik ez oraingo **abertzalearen** definizioa, Espainiako Errege Akademiaren iritzia sustatzen bada. Erdara peto-petoan «*nacionalista radical*» esan nahia izanen du. Gure kontura barrez?

Duela 400 bat urte, sorginen epaiketak zirela eta, toki batek izan zezakeen izena gaiztoen bilera deitze modua bihurtu zen. Baztertu zituen garai hartan erabiltzen ziren besteak –**sabat, juntas, conventículos**– eta atentzioa deitu zuen beste horrek, **akelarreak** hartu zuen guztien tokia. Hori bai, bere denbora kostatu zitzaion. Hemengo hainbaten bulkada behar izan zuen hasiera hartan, 1610ean; erdi atzendurik zegoela, bi mende beranduago berregitaratu zuten, pila aldiz, garaiko kronika –Moratin jaunak egin zituen 13 edizio eta laguna zuen Goya pintoreak eman zion irudia– eta, harrezkero... Makurrena gero etorriko zen, euskaldunok amua irentsi, jan eta sinetsi egin genuen. Bertako jakintsuek eman zioten hasiera, herritar xumearengana urte gutti direla hedatu bazen ere. Azkue, Barandiaran eta Caro Barojaren atzetik, AEKlarreak zirela, Akelarre musika taldea dela, pelikulak, antzerkiak, komikiak eta liburuak, turismo, leizeak, iñotiak... gezur batentzat lur emankorregia. Egun, gaztelaniaz, ez dago besterik.

Hala ere puskaz errazago gauzatu da, berrikiago, beste bat: **zuloarena**, alegia. Honetan ere ardur handiena gurea delakoan nago. Gu hasi ginen zentzu ezkutua ematen, gorde tokiarena... (*bereziki erakunde klandestino baten ezkutaleku edo arma-gordeleku adierazteko erabiltzen da*, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa). Gaztelaniaz **agujero** dute, **escondite, cavidad, cueva**,... dituzte. Ez ba! Horretan, guri mailegua hartu nahirik, urte eskas batzuetan komunikabideen jaun eta jabe egin zaigu, teorikoki sentiberatasun handiago bat suposatzen zaion EITB bera barne.

Dena den, **abertzalearena** gehiegizkoa dirudi. **Patriota** hitza maite dute. Nazionalistak besteak dira. Aberria/patria zainetatik hartzen duten nazionalistak, gaztelaniaz... abertzaleak? Esaterako? Inestrillas jauna abertzale deituko dute? Besterik gabe? ¿Falangista abertzale español? Eskerrak Akademikak gauzak argitzeko omen dauden.

«**Abertzalearena gehiegizkoa dirudi. Patriota hitza maite dute. Nazionalistak besteak dira. Aberria/patria zainetatik hartzen duten nazionalistak, gaztelaniaz... abertzaleak? Esaterako? Inestrillas jauna abertzale deituko dute?**»

# Atxiloketa zentroak

Mikel RODRIGUEZ

**U**da hasieran ezagutarazi zen berria, eta egia errateko, ez du oihartzun handirik izan ez prentsan, ezta gizartean ere. Ertzaintzak atxiloketa zentroak irekiko ditu Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; hau da, komisariatz aparteko egoitzak erabiliko ditu atxilotutako herritarrak giltzaperatzeko. Elizondo non dagoen ez zekien sailburuak zuzentzen duen Poliziak, nonbait, agente «gehiegi» erabiltzen ditu atxiloketa bakoitzeko, eta komisariak, gainera, atxilotuz lepo egoten omen dira. Beraz, aparteko egoitzak behar dituzte *lana* egoki egiteko. Agian gauza normala da, eta berriak ez zuen komentario gehiagorik merezi. Agian paranoiaren edo demagogiaren ondorioa da horri buruz hausnartzea, baina «atxiloketa zentro» terminoari kutsu faszista nabaria antzematen diot. Bertze herrialdeetako Poliziek erabiltzen dituztenak aztertzeko egon omen dira, eredu bilatu nahian. Interneten begiratu gero, herrialde anglosaxoietan atxiloketa zentroak nahiko hedatuak daudela ikus dezakegu, batik bat, etorkinak bertan atxikitzeko. AEBetan, Erresuma Batuan eta Australian, adibidez, dezente dituzte, eta zaindarek era guzietako gehiegikeriak egiten dizkiete bertan atxikitakoei. Arizonan, adibidez, 2003tik guttienean bederatzi etorkin hil dira (dituzte?) zentro horietan. Australiak ehunka etorkin ditu preso Christmas uhartean, Ozeano Indikoaren erdian, herrialdetik pare bat mila kilometrorra. Euren delitua? Asiako gatazka politiko ezberdinetaik ihes egitea, bertzeak bertze. Australiak hainbat erakunde ez-ofizialetatik behin eta berriz salatu dute zentro hori, eta hango gobernuak dituen gisako bertze zenbait. Erresuma Batuko multinazional batek kudeatzen ditu zentroak, eta bizi-baldintza ikaragarri gogorrak ezartzen ditu: preso aunitzek bere buruaz bertze egin dute, eta gosse greban hastea ohikoa da. Ez zuen hortik hartuko eredu sailburuaren lan-taldeak, ezta? Bueno, duela hamarkada batzuk Argentinan eta Txilen ere baziren atxiloketa zentroak. Atxilotuak bortizki torturatzeko zituzten han. Eta gero itsasora botatzen zituzten.

«**Poliziak, nonbait, agente «gehiegi» erabiltzen ditu atxiloketa bakoitzeko, eta komisariak, gainera, atxilotuz lepo egoten omen dira. Beraz, aparteko egoitzak behar dituzte lana egoki egiteko. (...)** «**Atxiloketa zentro» terminoari kutsu faszista nabaria antzematen diot.**»



## Irakurleak mintzo

Narbarteko  
barrideak  
kezkatuak

Miren I. Iriarte  
Narbarteko barrideen  
izenean

Azken bi hamarkada hauetan, hainbat kultura, tradizio eta herrialde-tako jendea hartu dugu Narbarten, eta ez dugu arazorik izan eurek onartu eta eurekin elkarbizitzeko.

Orain, ordea, liskarrak eta ezinegon orokorra baino ekarri ez dituen familia bat hartzerakoan sortu zaigu arazoa. Are gehiago, beldurtuz eta bertze toki batetik bidali egin zituztela erranez etorri ziren, eta dirua eskaini zitzaizen, eta horrekin euren etxebizitza erosi dute.

Familia zakar eta erasotzailea da, eta eurentako batzuk har ditzaketan farmako eta bertze produktuen eraginez, herritarrek kikilduak, beldurtuak eta abar gaude.

Euretako batzuek aurrekari penalak dituzte, eta azken aldian, gaztetxoek adinean aurrera doazenei eta bereziki haurrei hitzez eta fisikoki erasoak egin dizkiete. Elkarbizitza hondatu egin da, gaueko zaratak etengabeak dira, eta haurrak eta adinekoak ikaratzten dituzten bi zakurkume ere badituzte. Herritarrok hain arruntak diren gauza batzuk egiteari utzi diogu, plazan edo ostatuan egoteari, adibidez, eraso jasanezina delako. Haurrek honela-

koak erraten dizkigute: «beldurra diguzue, gure kontra ezin duzuelako deus ere egin», basteuak baitaude.

Ondoko barrideek, bik zehazki, euren etxea utzi behar izan dute eta laguntza gehigarria hartu, bigarren etxebizitza lortzeko. Hemen bizitzea ezinezkoa delako.

Gobernuak ematen dizkieten laguntzekin bizi dira, eta umeen ikasketak ordaindu arren, ez diete eskolara joaten diren ala ez jarraipenik egiten.

Azken hilabete honetan, zenbait lapurreta tarteko, prentsan ere agertu dira.

Egoera jasanezina da, zerbait egin nahi dugu eta denbora darabagu horretan saiatzen, baina ez dugu irtenbiderik aurkitzen.

Hau guztia modu onean lehenbailehen akitu dadin, laguntza eman diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.



**Bota bertsoa**  
Maddalen LOPEZ TAPIA (Lesaka) • Doinua: Aita izena

## Ikasturte berria

<p>Uda honetan egin ditugu hainbat irri ta algara bestak, pistina eta hondartza denetan ibili gara baina DBH 2-an hasteko badaukat nahiko ikara ohartu gabe uda osoa pasa egin zaigu iada bukatu dira oporrak eta bagoaz ikastolara. (Bis)</p>	<p>Hurrengo urtin ikastolari erran beharra adio baina kontrolak ta azterketak aurten in bar ttut serio irakasleak ez direlako gurekin aunitzik fio beraien ustez alferkerian aritzik ez du balio orain ikasten hasi beharko ea ze erremedio. (Bis)</p>
--	--

## Ibai izenen erabilera zuzenaz: Bidasoa

Andres IÑIGO  
Euskaltzaindiako  
Onomastika Batzordea

Euskaltzaindia Euskal Herriko ibai nagusien izenak arautzen ari da. Osoko bilkuraren azkeneko bi bileretan Bizkaiko mendebaldeko mugatik hasi eta Gipuzkoako ekialdekoraino Kantauri itsasoan isurtzen diren ibaienak eta berauen erreka-adar nagusienak onartu ditu, hots, Karrantzatik hasi eta Bidasoraino.

Toponimoetan ohi den bezala, amaierako -a bokala berezkoa ez bada, artikulua baizik, Euskaltzaindiak izenaren ondotik (-a) marka jartzen die, izen hori deklinatzean nola jokatu behar den jakin ahal izateko, esaterako Deba, berezkoa delako, baina Bidasoa (-a), artikulua delako.

Hori dela eta, Bidasoa izena deklinatzean honela egin behar da: Bidasoa, Bidasoan, Bidasoarekin..., baina Bidasoko, Bidasotik, Bidasora... Era berean, izen horrek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean. Adibidez: Bidaso maitea, Bidaso osoan, gure Bidaso hau...

Erabaki hau hartzeko, Euskaltzaindiak inguru horretako euskaldunen erabilera izan du kontuan. Izan ere, XIX. eta XX. mendeetako testuetan erabat arruntak dira gisa honetako ai-puak: Bidasora doaz; Bidasoko Bera; Bidasoko nekazarien biltzarra; Baztan, Malerreka eta Bidasoko gazteria, etab. Bertako herritarren artean bildutako ahozko

testigantzak ere erabileraren alde mintzo dira, arruntak baitira, batik batik, adin batetik goitikoaren artean gisa honetako esaldiak: Bidásora bota zuten; Bidásotik atera zuten; Bidásoko izokinak, etab. Horretaz gain, kontuan izatekoa da, herritar izena edo 'jentilizioa' deitzen dena, azken -a hori gabekoa dela, hots, bidasotarra, eta ez \*bidasoarra.

Hortaz, erabat baztertzekoak dira azkenaldi honetan, bai idatziz bai ahoz, hedatzen ari diren gisa honetako esaldiak: \*Bidasoako trenbide zaharra; \*Bidasoaraino iritsi ziren; \*Bidasotik pasatu ziren; Baztan \*Bidasoako ingurua; \*Bidasoako hitza... Horien ordez bertze hauek erabili behar dira: Bidasoko trenbide zaharra, Bidasoraino iritsi ziren, Bidasotik pasatu ziren, Baztan-Bidasoko ingurua, Bidasoko hitza...

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Krisi hau garrantzitsua da, 80ko hamarkadakoaren antzerakoa, baina hura ere gainditu genuen. Ekonomia berpizten hasiko da, eta enplegu eta garapen aukera izanen dugu guztiondako. Orain gerrikoa estutu beharra daukagu aurrera ateratzeko. Positiboa naiz, ez gara zulotik ateratzen ari, baina aterako gara».

**Gloria AGERRI**  
Cederna-Garalur elkartearen BERRIAK, 2010/2 (43.zkia)

«Badago uste bat gitarra zaharrak hobeak direla, egurraren zahartzearekin soinua ere hobetu egiten dutela. Baina egia da arazoak ere ematen dituztela, eta azkenaldian izan ditut arazo batzuk afinazioarekin (...) Mimatuta egin behar ditut –gitarrak–, sokak aldatu, afinatu, hezetasunetik aldentu... horrek lana eskatzen du».

**Joseba IRAZOKI**  
Berako musikaria BERRIA, 2010/08/24

**11 galdera labur**

**Aurtengo Amabirjin bestak hitz bakararekin deskribatu beharko bazenu, zein erabiliko zenuke?**

Mundialak.

**Zer da kanpoko jendea Goizuetako bestetara erakartzeko sekretua?**

Jai herrikoiak izaten direla.

**Krisia somatu al da bestetan?**

Krisia eta eguraldia, biak nabaritu dira. Ostiral eta larunbatean ibili zen jendea, baina eguraldiak ez zigun askorik lagundu.

**Zinegotzia izanda aunitz aldatu al zaizkizu bestak lehenagokoeikin alderatuz?**

Lehen gauekoa bakarrik bizi nuen, eta orain egunez ere hor ibiltzen naiz.

**Nola aurkeztuko zenioke neska bati nor den Goizuetako Fernando?**

Hitz egiteko moduko pertsona bat bezala.

**Elektrizista lanean edo beste egiten, zeinetan moldatzen zara hobekien?**

Bakoitza bere garaian.

**Zein afizio dituzu?**

Parranda, uste dut gazte gehienek bezala, eta lagunekin egotea. **Nola ikusten dituzu Goizuetako gazteak?**

Orokorrean, animatuak eta lanerako gogoarekin.

**Zer erranen zenioke Artikutza Donostiako dela erraten edo pentsatzen duenari?**

Nire ustez, Artikutzako eguna Goizuetako fiestetako azkeneko eguna da.

**Zer da Goizuetak faltan eta soberan duena?**

Faltan, errepide hori bexigoa eta gazteentzako etxebizitzak.

Soberan deus ez.

**Amets bat?**

Herriko gaztea Goizuetan gelditzea.



**Fernando GOIA → Goizuetako zinegotzia**

## BERA

GIZARTEA → HAUTESKUNDEAK

# Gure Txokoako zuzendaritza aldatzeko botazioa hilaren 17an

Egun horretan talderik ez bada aurkezten bi asteko epea emanen da

## TTIPI-TTAPA

Zuzendaritza Batzordea aldatzeko estatutu berriak onartu ondotik, irailaren 17an egingen dira Gure Txokoa elkarteko zuzendaritza berritzeko hauteskundeak. 20:00etarako egin dute deialdia. Egun horretan ez bada talderik aurkezten, bi asteko epea izanen da eta berriro ez bada inor aurkezten, Kudeaketa Batzordea osatuko da.

## PARTE-HARTZE ESKASA

Uztailean egindako ezohiko batzarrean erabaki zen estatutuak aldatzea. Dena den, gaia garrantzitsua izanik ere, elkarrekin dituen 1.300 bazkideetatik 26 bertzerik ez ziren bildu.

Proposatuz gero aukeren artean, lehenbizikoa izan zen bozkatuena, 20 botorekin. Hala, hauteskundeak deitu eta hautagaririk aurkeztuko ez balitz, edo aurkeztutakoak aukeratuak aterako ez balira, une horretan elkarrekin dituen bokalia baikoitzeko ordezkari banarekin osatutako Ku-

deaketa Batzordea osatuko litzateke.

Batzorde honen agintaldia gehienez urtebetekoa izanen da eta denbora horretan, egokia baderitzo, hauteskundeak deitzen ahal ditu. Epe hori betetzen denean, prozedura berarekin batzorde berria izendatuko da eta aitzineko agintaldikoek ere, segitzeko aukera izanen dute.

Uztaileko batzarrak izan zuen arrakasta eskasa ikusita, gaur egungo zuzendaritzatik gogorarazi dute Gure Txokoa bazkide guzkiek osatzen dutela, eta ez batzuek bakarrik.



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

## Bosgarrenez nagusitu da Etxegarai Saran

Aurten bosgarren aldiz irabazi du Fernando Etxegarai Sarako Kontrabandisten Lasterketa, eta ordura arte zegoen borts garaipeneko marka berdindu zuen. Baina ez da, parte hartu duen herritar bakarra izan: gizonetan Iñaki Pikabea bosgarren izan zen, eta emakumeetan Loli Pagola eta Jone Zelaietak ere parte hartu zuten. Etxegarai eta Pikabearen postuekin, taldeka Bera nagusitu zen. Bertzalde, Nafarroako txokorbiltze txapelketa ere irabazi du aurten Etxegarai.



ARGAZKIA: GURE TXOKOA

## Gure Txokoako dantzariak Donostiako Aste Nagusian

Aspaldi hasi ziren Gure Txokoa Dantza Taldekoak herritik kanpo saioak eskaintzen, eta gaur egun, aunitz dira bisitatu dituzten tokiak. Joan den hilabetean, berriz, Donostian izan ziren, eta XXXIII. Txistulari Alardearen egitarauaren barnean, Makildantzak eskaini zituzten Konstituzio Plazan. Eta telebistan agertu ziren, ETBk abuztuaren 21ean egun horretako saioa eskaini baitzuen. Argazkian Gure Txokoako dantzariak Xabier Otaegi aurkezlearekin ageri dira.



## PERTSONAIA

Izei GILLENEA

Bikain moldatu da Munduko Txapelketan

Iragarri bezala, 17 urteko Izei Gilleneak abuztuaren Japonian jokatu zen Kenpo-Kaiko Munduko Txapelketan parte hartu zuen. Hamamatsu herrian jokatu zen txapelketa, abuztuaren 9an eta 10ean, eta parte hartu bakarrik, ez, emaitza onak ere eskuratu zituen. Borrokan, hirugarren gelditu zen jubenetan eta horrez gain, azpitxapelketa izan zen jubeni mailako kata sailean. Zorionak!

## Matrikulazioa Musika Eskolan

Isidoro Fagoaga Musika Eskolan matrikulatzeko epea irailaren 1etik 10era izanen da.

## Dantzari Ttiki Eguna

Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta, irailaren 18an, larunbatarekin, Dantzari Ttiki Eguna egingen da. Xehetasunak hurrengo alean.





**LAGUNAK! PREST ZAUDETE IKASTURTE BERRIRAKO?**  
ORRIALDE MONETAN SEKULARO AUKERA AURKITIKO DIZUE

**IKASTURTE BERRIA 2010-2011**

**2010 / 2011** kurtsorako matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak.  
**IKASTURTE HASIERA: Irailak 13**  
University of Cambridge azierketara aurkezleko prestakuntza  
Itzulpen laniak egiten dira • Eskola laguntza  
Elizagibela, 7 behea • 31740 DONEZTEBE  
T. 626 908 076 • [angieacademy@gmail.com](mailto:angieacademy@gmail.com)

**ESKOLAKO MATERIALA ETA TESTU LIBURUAK ENKARGUZ**

T./F: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

**AXULAR**  
Fotokopiatu, faxu eta erreproduzitateko materialak, liburak, prentsa, bideoak, testu-liburuak eta enkarguzko zerbitzuak.

Santiago • ELIZONDO • Tfona: 948 581 507

**ELKAR liburutegia**

- testu liburuak
- eskolako materiala
- aldizkariak eta prentsa
- faxa eta fotokopiak

Eztegara, 18 - T. 948 630 691 - BERA

**TOKI-ONA KIROLDEGIA**

2010-2011 kirol jardueren programa. Apunta zaitzete!  
Izen-ematea: irailaren 20tik 25era

Irailak 10 inguruan etxeetara udal kirol programa guztiarekin eskuprograma banatuko da.

2010-2011 kirol jardueren programa. Apunta zaitzete!  
Izen-ematea: irailaren 20tik 25era

Irailak 10 inguruan etxeetara udal kirol programa guztiarekin eskuprograma banatuko da.

Informazioa: 948 630 215  
[bera@urdel.com](mailto:bera@urdel.com)

**LESAKAKO KIROLDEGIA**

2010-2011 kirol jardueren programa. Apunta zaitzete!  
Izen-ematea: irailaren 20tik 25era

Irailak 10 inguruan etxeetara udal kirol programa guztiarekin eskuprograma banatuko da.

Informazioa: 948 637 400  
[lesakaj@urdel.com](mailto:lesakaj@urdel.com)

2010-2011 kirol jardueren programa. Apunta zaitzete!  
Izen-ematea: irailaren 20tik 25era

Irailak 10 inguruan etxeetara udal kirol programa guztiarekin eskuprograma banatuko da.

Informazioa: 948 637 400  
[lesakaj@urdel.com](mailto:lesakaj@urdel.com)

**PROZESUAK**  
Azeri beldurrikako materiala digital berria

- Inprimaketak, zifur beldurrikako eta koloretan (katalogoak, prentsa-jarduerak, bideo teknikoak...)
- Planen inprimaketak eskaintzen dituzten tamaina handi beldurrikako eta multzoak egiteko

Erreklamazioa zuzentzen du

Foruen katea: 4 • 900  
T.F. 943 63 22 11  
[bera@urdel.com](mailto:bera@urdel.com)

## LESAKA

LANA → GALBANIZATU ETA MARGOKETA LERRO BERRIA

# Arcelor-Mittaleko lerro berria urte bukaeran hasiko da lanean

Bidasoa  
Planean 30  
milioi euroko  
inbertsioa  
egiten ari dira

## Aitor AROTZENA

Arcelor Mittalek Lesakan duen lantegian egiten ari diren margo-ge eta galbanizatu lerro berria urte bukaeran hasiko da lanean, enpresako iturriek jakinarazi dutenez. Hasiera baten proba moduan hasiko dira eta martxan jartzen denean ikusiko da Bidasoa Planean aurrikusitako inbertsioaren emaitza. Plan honen ondorioz, Legasako lantegia itxi eginen da eta jarduera guzira Lesakan bilduko da.

Arcelor Mittaleko arduradunek aipatu dutenez, plan honetako inbertsioak (30 milioi euro inguru) aurrikusitakoaren arabera gauzatzen ari dira, baina produktioaren inguruko zalan-tzak daude oraindik orain. Honela, emandako datuen arabera, estatu osoko lantegiak (tartean Legasa eta Lesakakoa) bere ahalmenaren %70era aritu ziren apirila eta ekaina bitartean. Urteko lehenbiziko hiru hilekoarekin konparatuz zertxobait gehiago da kopuru hori, baina datozen hilabetetan igoera



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

## 3x3 futbola Bortzirietako Gorrien eta Beti Gazteren eskutik

Bortzirietako Gorriak peñak eta Beti Gaztek, Udalaren eta Osasuna Fundazioaren laguntzaz antolatuta 3x3 futbol lehiaketa egin zen abuztuaren 11n, frontoia- ren gibelaldeko aparkalekuan. Lehen mailan 8, 9 eta 10 urteko lau hiru-kote aritu ziren (bi lehenbizikoak Iruñean jokatu ziren finaletarako sailkatu ziren) eta bigarren mailan, 11 eta 12 urteko talde bakarra izan zenez, zuzenean sartu zen finalean. Lehenbiziko aldia eta abuztua zela kontuan hartuta, futbolari gazte-txo gutti animatu arren, gustura ageri ziren antolatzaileak.

erritmo hori motelduko dela uste du enpresak.

Aipatu, Arcelor Mittalek 1.830 milioi euroko irabaziak izan dituela urteko lehen sei hilekoan.

## Burdinaren Etxea

Urte osoan itxia egon ondotik, uda garaian, abuztuaren 10etik irailaren 12ra zabalik dago Burdinaren Etxea. Zehazki, asteartetik igandera, 10:00etatik 14:00etara zabalitzen ditu atekak. Sarrera 2 euro ordaindu beharko da eta 12 urte arte dohainik izanen da. Irekia dagoen bitar-

tean, Turismo Bulego ere bertan izanen da.


## Bittiriko bestak

Irailaren 10etik 12ra ospatuko dira Bittiriko bestak. Ortziralean, 20:00etan patata tortilla txapelketa egingen da eta ordu berean, Bittiriko III. Trikitixa Txapelketa jokatuko da. 21:00etan txupinazoa botako da eta 21:30ean berendu afaria egingen da. 23:00etan rock kontzertua izanen da Arma, Tiro, Punk eta Aska-tu taldeekin.

Larunbatean, hilak 11, 10:00etan diana izanen

da txistulariekin eta 12:00etan auzoko korrikalarien arteko desafioa. Apusturako aukera ere izanen da. 13:00etan bertso poteoa egingen da trikitilarekin eta 14:30ean bazkaria Jon Maia, Josu Sanjurjo eta Mañukortarekin. 19:30ean berbena izanen da Gaubela taldearekin.

Azken egunean, 11:00etan haur jokoak izanen dira Eitzeta plazan. 17:30ean Lur Korta ipuin-kontalaria ariko da Bittiriko plazan eta bukatzeko, 18:30ean, trikitixa jaialdia egingen da.



## PERTSONAIA Irati OTXOTEKO

Brontzezko  
bi domina  
Espainiako  
txapelketan

Irati Otxoteko txirrindulari lesakarrak kadete mailako Espainiako pistako txapelketan brontzezko bi domina eskuratu zituen Bartzelonako Horta belodromoan. Lesakarrak 500 metroko proban eta abiadura proban atera zituen bi dominak. 500 metroan denborak hagitx estu egon ziren, batez ere hiru lehenbizikoek, dezima berdinean sartu baitziren. Urrezko dominatik 54 zentesimara gelditu zen Irati, baina kontent egindako lanarekin. Abiadura proban, berri, lehenbiziko 200 metro egiten dira, eta lehen 8 txirrindulariak buruz buruko enfrontamenduetara sailkatzen dira. Irati 3. sailkatu zen, eta lehen enfrontamendua irabazi zuen, baina finalerdietan galdu egin zuen. Hirugarren posturako lehia irabazita lortu zuen domina.

**BOBEKO**  
BIBLIOTEKA  
Frank Azco - LESAKA  
Tfn: 948 637 826

Lehenia  
Biblotekak  
Mertze  
Jantzi-erakunde  
Peltin Mañak  
**KALIFORNIA**  
Benetako plaza 30 3E770 Lesaka  
T. 948 637 514

**BOZZ-AID**  
LANTZARITZA  
948 637 127 • LESAKA

**IRU BIDE**  
Energia - Auzoak  
948 637 127 • LESAKA  
Tel: 948 637 127

**XATURETXEA**  
ZABAL  
JATETXEA  
T. 948 637 260 - LESAKA



EHIZA → LASTER HASIKO DA DENBORALDIA

## Usategietako postuen enkantea irailaren 11n egingen da

12:00etan izanen da Herriko Etxean

### Irune eta Itsaso

Udalak enkante publikoa egingen du larmendiko barrutian dituen postuak aurtengo ehizaldirako errentan jartzeko.

Joan den urtean baino bederatzita postu gutiago dira eta gainerakoek zenbaki ezberdina dute. Enkantearen baldintzak udal idazkaritzan daude interesatuak dauden guztientzat. Ondoko taulan prezioaz gain, postuek lehen zeukaten zenbakia eta oraingoa ageri dira.



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE

### Pasatu dira Andremariak

Andremariak giro ederrean joan dira. Aurtengoan Pello Apezetxea, herriko apezak, eman zion hasiera besteei antxaferoa botaz; Orain dela 20 urte Euskara Mankomunitatearen sortzaileetako bat izan zelako eta baita azken urte hauetan euskal kulturaren alde egin duen lanarengatik ere. Aurtengo ekitaldi arrakastatsuenak herriko dantzarien saioa, herriko gizon eta emakumeen arteko kirol desafioa, Txutxin Ibañez mariatxi taldearen emanaldia eta nola ez, bezperako herri afaria eta Asaua izan dira. Nahiz eta gorabehera ttiki batzuk izan diren, egitaraua osorik bete da eta kontent agertu da Udala.

### 2010EKO EHIZA GARAIA

POSTU ZENB.	LEHENGO ZENB.	PREZIOA
6	3	1.555 €
7	2	2.000 €
8	Parapeto	2.960 €
9	10	2.020 €
10	11	2.020 €
11	13	2.960 €
12	14	1.320 €
13	15	1.320 €
14	16	830 €
15	Maxterneko kaskua	Udalarena
16	18	830 €
17	19	830 €
18	21	830 €
19	22	830 €
20	23	1.320 €
21	24	1.320 €

### EAKo zinegotziak talde independente

EAK Udalean zituen hiru zinegotziek –Aran-txa Zubieta, Agustin Arribillaga eta Jose Antonio Telletxeak– talde independente gisa segitzea erabaki dute. Horren arrazoi nagusia EAK hartu dituen erabaki politikoekin ados ez egotea dela azaldu dute. Jakinarazi dutenez, «seriotasuna eta zorroztasuna gure izaera politikoaren oinarriak izanen dira eta, ur-

te aunitzez lan honeri ekiteko asmoa berrirapatu nahi dugu».

### HERRI TALDEA HARRITUA

Herri Taldeak bere harridura adierazi du «batez ere Nafarroako EAK gure eskualdean egindako inbertsio politikoa kontutan izanik». Horrekin batera, zera gaineratu du: «1983an *Independientes de Echalar* zerrenda bat ere aurkeztu zen eta ez beza izenak izana egin...».

### Larraburuko kideak Goierriin

Urtero bezala, Larraburua elkarteak egunpasako ateraldia antolatzen zuten Goierriara abuztuaren 20an. Goizean, Urretxun erleen museoa bisitatu zuten. Ondotik, Legazpin Mirandaolako burdinolaren bisita bertualde egin zuten eta arratsaldean Zumarragako La Antigua eliza ezagutu. 31 lagun joan ziren eta Joxepa antolatzaileak erran duenez, jendea gustura ibili zen.

**USOA**  
nekazari kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**Javier Manterola**  
Tolako instalatzailea  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bimilio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**ERROTAZAR**  
harategia  
Bertako produktua  
Etegarra, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

# IGANTZI

KIROLA → BILTOKI ELKARTEAK ANTOLATUTA

## Mendi bizikleta ibilaldia egingen da igande honetan

Helduek hiru ibilbide izanen dituzte aukeran eta hurrek bat

gainerakoek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Ibilaldiaren ondotik oparienezozketa eta luntxa izanen dira.

### 60 LAGUN MENDI BIZIKLETA JAUTSIERAN

#### TTIPI-TTAPA

Uztail hondarrean egin zen Mendi Bizikleta Jautsierak ez ditu nonbait ase herriko txirindulazaleak, eta hortaz, igande honetarako, irailak 5, azken urteotan ohiko bihurtu den mendi bizikleta ibilaldia antolatu du Biltoki elkarteak. Haur nahiz helduek izanen dute ibiltzeko modua.

Haurren ibilaldia 09:30ean hasiko da eta helduak 10:00etan abiatuko dira. Hiru bide izanen dituzte aukeran: 15 kilometrokoa, 20koa eta 25ekoa. Orain arte bi izaten ziren, baina aurtent bertze bat egitea erabaki dute.

Izen-ematea egunean bertan egin beharko da, 09:30 baino lehen. 16 urtetik beheitikoek dohainik izanen dute eta

Eguraldi beroari gogor eginez, 60 kirolarik parte hartu zuten uztailaren 31ko Mendi Bizikleta Jautsieran. Bi txandatan erabaki zen lehia, eta Xabier Telletxea herritarra sailkapen orokorrean hirugarrena eta 30 urtetik goitikoen mailan lehenbizikoa izan zen. Ez zen, ordea, herritar bakarra izan. Imanol Retegi ere atera zen, eta elite mailako sailkapen orokorrean, 22. gelditu zen. Bere gibeletik Alfonso lantzi beratarra gelditu zen. Alvaro Gonzalez beratarra izan zen junior mailan parte hartu zuen eskualdeko bakarra, eta bere kategorian zazpigarrena eta absolutuan 33. gelditu zen. Master 30 kategorian, bertzalde, Xabier Telletxea izan zen ga-



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Iraitz Etxebarria (23 urtez beheitiko kategorian garaile), Jose Antonio Diez (irabazlea) eta Xabier Telletxea herritarra (Master 30 kategorian txapeldun) podiumean.

#### DATUA

# 80-100

PARTE-HARTZAILE izan dira azken urteotako Mendi Bizikleta Ibilaldian.

raile, eta Iñaki Esarte baztandarra hirugarren gelditu zen, eta 12. absolutuan.

Proba hau Euskadiko Oponerako puntuagarria izan zen, eta irailaren 25ean Galdakaon (Bizkaia) jokatu den azken probaren faltan, puntu gehien dituen Telletxea da. Bere kategorian lehen proba izan ezik, denak irabazi ditu.



ARGAZKIA: MILA IRAOLA

### Donostiako Aste Nagusian ere txapeldun

Unai Telletxeak bertze txapel bat ekarri du herrira. Oraingo honetan, Donostiako Aste Nagusiko XXI. Pilota Txapelketatik. Infantil mailan, Telletxeak Iker Espinalekin osatu zuen bikotea –argazkian–, eta abuztuaren 19ko finalean, 18-8 irabazi zieten gipuzkoarrei. Hilabete honetan ere Donostian jokatzekoa da Telletxea, eta Logroñon ere ariko da.

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001  
LAC  
S00-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

m bentamiguel  
denda, jatetxea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Tabakoa  
Likorrak  
Janaridenda  
Urdategia

Ibardingo Lepoa - 948 631 209



UDALA → LANPOSTU DEIALDIA

## 17 lagunek eman dute zerbitzu anitzetako lanposturako izena

Urrian azterketak hasiko dira

### Nerea ALTZURI

Hasiera batean, hila-bete honen hasieran has-tekoak ziren zerbitzu anitzetako langilea aukeratzeko azterketak. Baina azkenean, urrian abiatuko dira, euskara azterketarekin. Hori izanen da lanposturako lehendabiziko froga, eta ondotik, azterketa teorikoa eta praktikoa egingen dira.

Deialdi honetarako epaimahaia horrela osatua egonen da: mahaiburua alkatea izanen da eta honen ordezkoa alkateordea; kide bat zinegotzia izanen da eta bere ordezkoa ere zinegotzia. Bigarren kidea Nafarroako udal eta kontzejuek izendatutako teknikaria izanen da eta ordezkoa ere halaxe izanen da; Ceder-na Garalurrek izendatu-ditu hirugarren kidea

eta honen ordezkoa; Berako Toki Ona Institutuko irakasle bat izanen da bertze kidea, eta honen ordezkoa bertze irakasle bat. Idazkaria herriko idazkaria izanen da, eta ordezkoa, Etxalarkoa.

Guzira 17 lagunek eman dute lanposturako izena eta urte bukaerarako langile finkoa lanean hastea espero da.

### Medikuaren etxea

Medikuaren etxeko bizi-zako lanak txukun-txukun doaz. Jon Azkarraga eta Mikel Altzuri herriko langileak eta Patxi Mutuberría iturgina ari dira, bertzeak bertze, lanean.

### Guk abizena, zuk?

Hilabete honetan abizena euskaratzeko kanpaina hastea aurreikusitua da eta egin nahi duenak udaletxera jo dezake.

### Herria zainduz

Bakoitzaren eskuetan dagoenez herri guziaren



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI

### Besta ederrak izan dira

Giblean utzi dugu udako egunerokoa. Oraindik urte sasoiari akabera emateko aste batzuk gelditzen badira ere, ikasturtearekin batera betikora itzuli gara ia gehienak. Baina ezin aipatu gabe utzi bestak. Aurtengo Amabirjinetan baseritarrei egin zitzaizkien gorazarre eta Teodoro Pikabea eta Ixidro Etxeberria baseritarren ordezkariak bota zuten Herriko Etxeko balkoitik altxaferoa. Berrikuntzetako bat suzuria eguerdian botatzea izan zen. Abuztuaren 13an, Ekaitza Elkartek eta Gazte Asanbladak antolatutako arratsa izan arren, Amabirjin bezperako eguerdian lehertu ziren bestak. Bertzalde, egitarauari gehiago erreparatu, Iruñeko erraldoien konpartsa ttikiaren bisita izan genuen. Gainerakoan, egunez zein gauez, egitaraua ederki osatua gelditu zen. Bertze gisa, aurten ez da udal bazkaririk egin bestetan. Krisi egoera dela eta, diru hori bertze gauzetan erabiltzea egokiagoa ikusi du Udalak. Arantza Rock gauak izandako erantzunarekin, berriz, kontent gelditu da Gazte Asanblada.

ondasuna zaindu eta errespetatzea, herriko al-tzariak gutti errespetatzen dituen jendea haus-narketa egitera bultzatu nahi du Udalak.

**sarobe**  
gozategia olindegia

77 de entegara 25 bajo 1948 63 08 99  
4700 bera (navarra) www.sarobe.net

Frutas  
Verduras  
**FRANDONEA, S.L.**  
FRUITAS DE CALIDAD

**BILGEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152**  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

**TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA**

**AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI**

Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → AISIALDIA

## Ameriketean ibilitako euskal artzainen besta irailaren 19an eginen da

Sunbildarrak Ameriketean elkarteak eta Udalak antolatu dute, bertze erakundeekin

DATUA

# 700

LAGUN  
espero dituzte  
euskal artzainen bestan.

### TTIPI-TTAPA

Sunbildarrak Ameriketean Elkarteak eta Udalak antolatuta, Ameriketean izandako euskal artzainen besta handia irailaren 19an eginen da. 700 lagun espero dituzte bazkarian eta egun osoko egitarau zabala prestatu dute:

- 09:00etan: hainbat herritatik autobusak abiatuko dira.
- 10:00etan harrera-ekitaldia eginen da. Trikitilariak ere ariko dira eta jatekoa-edatekoa eskainiko da.
- 11:00etan, Elizan Me-

za izanen da Ameriketean ibilitako guztien alde, herriko abesbatzaren eta bertsolarien kantuekin.

- 12:00etan dantzariak eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak ariko dira.
- 13:00etan Herriko Etxean artzainen topaketa eginen da eta omenaldia eskainiko zaie.
- 14:00etan *Highballa* zintzur bustitzea eginen da, Ameriketean hain ohikoa zuten edaria, Canadian Club whis-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

### Giro ederrean Santiburtzio bestak

Alkateak bota zuen txupinazoa baino lehen, antzinako eta gaur egungo base-rriko lanak aurrez-aurre paratu ziren herri kirol jaialdi berezian. Eskulaneokoe 15 segundogatik irabazi zieten «motorizatuei». San Tiburtzio Egun handian, dantzari ttikiek bere saioa eskaini zuten. Aitzitik, helduen Dantza Luzerik ez zen izan, taldea osatzeko mutil nahiko elkartu ez zelako.

kyaren eta Seven Up freskagarriaren nahasketa berriz ere edateko aukera izanen da.

- Ondotik, 700 lagunendako bazkaria izanen da pilotalekuan eta animazioa ere izanen da.
- 19:00etan agurra eskainiko da eta autobusak abiatuko dira buel-

tan herrietara.

Aipatu, bertzalde, artzainen egun hau iragarriko duen kartela Agustin Sainz igantzarrak eta Josetxo Etxepare lesakarrak egin dutela eta irudia harrian grabatu eta Herriko Etxean jartzeko asmoa dagoela.

### Errepide mozketaren irailaren 9an

Protestek aitzinera segitzen dute, eta hurrengo errepide mozketaren irailaren 9an eginen dela iragarri dute. Lagarren mobilizazioa izanen da eta 11:30etik 12:00etara eginen da.

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJAN

**zalain**  
JATEETEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**zalain**

Eskalerak igotzea... ez da arzapal  
plataformak  
igogailu bereziak  
aulki bereziak...

**behetik**



Afarga-tekl. 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888  
www.behetik.com



OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 17TIK 19RA

## Iraileko hirugarren asteburuan ospatuko dira besta ttikiak

Larunbatean  
Jalisco Band-  
ekin dantzaldia  
izanen da

### TTIPI-TTAPA

Aurtengo besta ttikiak badute eguna: irailaren 17an hasi eta 19an akituko dira. Lerro hauek idazterakoan, antolatzaileak oraindik egitaraua zehazten ari baziren ere, gutti goitibeheiti hauek izanen dira ekitaldiak.

Besta ttikiari hasiera ofiziala eman aitzinetik, ortziralean, hilak 17, pintxoak izanen dira, eta beranduago, 20:00etan txupinazoa botako da. Gauean kontzertuak izanen dira. Larunbatean, eguerdian tortilla eta paella lehiaketak egingen dira eta horrekin bazkaria egingen da gero. Ondotik, mus txapelketa jokatuko da da. Gauean, berriz, Jalisco Band taldearekin dantzaldia izanen da.

Gainerako xehetasunak hurrengo alean ematen ditugu.

### IAT zabalik

Ibarburu aldean erai ki duten Ibilgailuen Azterketa Teknikora (IAT) egoitza berria irekia dago

abuztuaren 23az geroztik. Azterketak egiteko bi leerro edukiko ditu eta TÜV Rheinland enpresak kudeatuko du.

### Merkatarien zozketako saridunak

Hauek izan dira Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak abuztuaren 21ean zozketatu zituen 200 euroko 10 erosketa txartelen saridunak: Lourdes Goñi (Doneztebe); Amaia Castro (Doneztebe); Eva Lertxundi (Almandoz); Arantxa Arregi (Doneztebe); Kontxi Saldias (Beintza-Labaien); Junkal Zubigarai (Legasa); Laura Andresena (Legasa); Izaskun Juanena (Doneztebe); M<sup>a</sup> Jesus Elizondo (Doneztebe) eta Junkal Zubigarai (Legasa).

### Seniorren bi talde

Seniorren mailan, bi talde izanen ditu denboraldi honetan Errekak. Lehenbiziko taldea, iazko jokalariekin osatutakoa da eta Dani Urroz izanen da entrenatzailea. Dena den, hiru jokalaririk garrantzitsuk taldea utzi eta Lehen Maila Nazionalan ariko dira: Pascual Bertiz Sanco Anaitasunan, eta Ibai Marizkurrena eta Javi del Villar Atarrabia-



ARGAZKIAK: ERREKA KIROL ELKARTEA

### Udako Kirol Eskola arrakastatsua

Hiru taldetan banatuta, 50 neska-mutikok ederki pasatu dituzte udako goizak kirola eginez. Ainara Marizkurrena izan dute Erreka Elkarteak aurtun hamargarrenez antolatu duen ekimen honetako begiralea. Argazkian, goitik behera, ttiki, ertain eta haundien taldeak Ainararekin.

ko Beti Onak taldean. Eta bigarren taldea Juanjo Ramosek zuzenduko du eta jokalariek iaz jubentzen aritu zirenak dira.

**MINDEGIA ETA MEOKI  
OHOREZKO MAILAN**  
Niko Mindegiak eta Ibai

Meokik Amaya Sport San Antoniorekin Ohorezko Mailan jokatuko dute aurtun. Taldeak izanen dituen bi nafar bakarrak dira eta hara non, biak Doneztebeakoak eta Erreka Kirol Elkartetik ateratakoak dira.

Denboraldi honetan, beraz, herriko bortz jokalaririk izanen dira maila nazionaletan: bi Ohorezko Mailan (Meoki eta Mindegia) eta hiru Lehen Maila Nazionalan (Bertiz, Marizkurrena eta Del Villar).

**BERA** Zure ingurua klase guztietako insektuz (xomorra, zinoarra, armiarria, kukuxu...) eta orretoi xagotuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zabalain, 42 A • BERA

**BIDASOA**  
TELURAK - PERTURAK  
KOTURAK - AUTOMATIZATURAK  
MOBILITATEK - BIKOMUNIKATURAK

T.F. 943 61 50 60

Auzolario Lopez de Euzen, 11  
BILIN - BERA

**F. LANCHAS**  
Aukerak eta berriztatzea  
Parket eta parket flotatzailerak  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

# URROZ

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 31N

## Lehia eta apustuaren aitzakian, giro ederra Leurtzako urtegietan

Eguraldi onarekin, 50 lagun elkartu ziren bazkaltzeko

### Joseba URROTZ

Azken aurreko alean adierazi bezala, uztailaren 31n Leurtzako urtegietan bazkaria egin zen herriko gazteen artean, eta aitzinetik kirol lehia ere izan zen.

Eguraldi polita izanik, kanpotar aunitz izatea ez zen harritzekoa, baina apustuaren ikusle ia denak herritarrak

izan ginen. Lehia polita sortu zen, eta alde hargitzik atera zuen bikote irabazleak, 20 segundo inguru bertzerik ez. Bikote batek borts enbor moztu behar zituen eta bertzeak hiru, gero lasterka denek berdin, bi itzuli bi urtegiei. Enbor gehien mozteko zituztenak irabazi zuten, aipatu bezala, segundotako aldearekin.

Ondotik, 50 lagun inguru elkartu ginen bazkaltzeko, horretarako eguraldi bikaina zegoen, eta giro polita izan zen. Entsalada, krocketak eta txuleta ausarki,



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Herritarrak elkartzeko aitzakia ezinhobeia izan zen uztailaren 31n egindako hitzordua.

iluntzen hasi zuen arte han egon ginen gehienak.

Bertzalde, ez dakit eragina izanen zuen besta hau hemen iraga-

rri eta foruzainak aipatu izanak aitzineko alean, baina kontrola paratu omen zuten Anizpeko bidegurutzen lege zaindarien, denboragu-

ttiz izan bazen ere. Beharbada ez zuen bazkariarekin zerikusirik, edo TTIPI-TTAPA irakurtzen ote dute? Hori ona edo txarra ote da? Auskalo!

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?  
**HAU DA ZURE AUKERA**

**IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA**  
bakarrik 10€ pertsonako  
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan)  
Eskaintzaren azken eguna: irailak 30

**IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA**  
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA  
astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan 26€ pertsonako  
larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan 29€ pertsonako  
Eskaintzaren azken eguna: irailak 30

**BALDINTZAK:** ERRESERBA EGIN BEHAR DA  
Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu

**ELGORRIAGA**  
ERRESERBA EGIN BEHAR DA  
Errotaldea z/g  
31744 Elgorriaga (Nafarroa)  
Tel. 948 45 60 45  
www.balnarioelgorriaga.com



FESTAK → AKITU DIRA AMABIRJINAK

## Haur, gazte eta helduek gozatu dute Amabirjin festetan

Haurrek goizez eta arratsaldean gozatu dute aurten

### Fermin ETXEKOLONEA

Inolako ezbeharrak gabe, arbola altxatuz hasi eta botaz akitu ziren aurten ere Amabirjin festak. Eta bost eguneko ospakizunak laburbiltzeko zerbaitekin esan beharko bagenu, dena ongi joan dela esan genuke. Bezperan, larunbatarekin ibili zen jende gehien, baina gainerako egunetan ere herritarren artean giro ona sortu zen.

### HAURREN EGUNA

Haurrek ederki pasatzeko aukera izan dute festetan. Izan ere, aurtengoan egun osoan izan baitzuten aisialdirako tarteak. Goizean, 50 marrazki inguru aur-

keztu ziren lehiaketara eta Eriz Magoaren magiarekin ere gozatu zuten. Arratsaldean, berriz, betiko jokoak egin ziren. Batukada ere izan zen egun horretan eta gauza batekin eta bestearekin, egun polita aterata zen.

### TXAPELKETAK

Festen barne, hainbat txapelketa ere jokatu ziren herritarren artean, pilotakoak batzuk, eta musekoak eta plater tiroketakoak, besteak.

Pilotan, nesketan, pala txapelketa jokatu zen, eta Andrea Mendiburu eta Leire Mariezkurrena izan ziren garaile. Finalean Olaia Loiarde eta Ainhoa Larreari irabazi zieten.

Palan, gizonetakoetan, Gorka Fuentes eta Oinatz Asensio izan ziren txapeldunak. Finalean Txomin Uhalde eta



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Patata tortilla txapelketako irudia da goikoa, eta besteak Haurren Egunekoak eta emakumezkoen pala txapelketako finalistena.

Jon Mikel Asensio garraitu zituzten.

Eskuz, berriz, Urko Loiarde eta Mikel Indakoetxea nagusitu ziren, finalean, Jon Mikel Asensio eta Imanol Baleztena mendean hartuta.

Mus txapelketan, bestalde, Pedro Arregi eta Aintzane Juanikorena senar-emazteak atera ziren txapeldun. Bi-

garren sailkatu zen bikotea Pello Santesteban eta Jexux Mutuberriak osatutakoa izan zen; hirugarren Pili eta Maixux Santesteban gelditu ziren eta laugarren Xanti eta Txomin Uhalde aita-semeak.

Plater tiroketan, berriz, Hilario Mutuberria gailendu zen, eta Xabier Bendoiro gelditu zen bigarren.

Akitu dira festak, uda ere badoa, eta horrekin batera ikasturtea hasteko tenorea ailegatu zaie neska-mutikoei. Honezkerok, eskolarako motxila prest izan du bategi bakoitza. Egur lotek ere markatuak izan dira eta egurrak ateratzen ere hasiak dira herritarrek. Eguneroko martxa hartzeko ordua ailegatu den seinale.

616 513 497

**PITTI**  
ESKABAZIOAK

**GARRAIOAK,  
ESKABAZIOAK,  
KONTENEDOREEN  
ZERBITZUAK**



Kontenedoreak: 5 m<sup>3</sup> - 7 m<sup>3</sup> - 12 m<sup>3</sup> - 30 m<sup>3</sup>

**Mota guztietako hondakinak biltzen dira**

Tel/Fax: 948 45 13 89  
C/ Amezitia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## OIZ

BESTAK → IRAILAREN 3TIK 6RA ETA 8AN

# Igande arratsaldeko aizkora apustuan Erasun, Saralegi, Kastro eta Larretxea gazteak ariko dira

Meza Nagusia asteazkenarekin eginen da

**Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Tartean, **23:00etan** kontzertua MUGALARIAK taldearekin.

## ORTZIRALA 3

**20:00etan** altxaferoa, beste hasiera emanez. **Ondotik** Doneztebeko txistulariak herrian barrena. **21:00etatik aitzine-rra** Zopak Herriko Ostatuan. **Gauetz** dantzaldia FRANTZISKO akordeoi-ariarekin.

## LARUNBATA 4

**11:00etan** mus txapelketa elkartean. **11:30-ean** gaztetxoan laxoa partida. **17:00etan** haurrentzako jokoak plazan. **18:30ean** jokoak herritarren artean. **Ondotik** haurrentzat eta helduentzat txokolatea.

## IGANDEA 5

**11:00etan** pilota partidak afizionatuen artean. **11:00etatik aitzine-rra** herriko artisauen erakusketa. **18:00etan** aizkolariak: Ander Erasun-Ruben Saralegi, Raul Kastro-Oihan Larretxearen kontra. **19:00etan** herritarren artean VII. patata tortilla lehiaketa. **Ondotik** tortilla, xingarra eta txistorra dastaketa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia FRANTZISKO akordeoi-ariarekin.

## ASTELEHENA 6

**14:00etan** herri bazka-



ARGAZKIAK: ALBERTO SAN MIGEL

1970ean ateratako argazkia da goikoa, orduan eskolan zeuden neska-mutikoena. Gainerakoak, berriz, azken urteotako bestetan ateratakoak dira.

ria. Bertsotan, Sustrai Colina eta Julio Soto ariko dira. **17:00etan** Toka eta sokatira herritarren artean. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia MODESTO akordeoi-ariarekin. **Bestak**

**akitze**ko kalejira herrian eta GAIXOA NI.

## ASTEAZKENA 8

**11:00etan** Meza Nagusia. **Ondotik** luntxa herriko ostatuan.

## OHARRA

Bestetan gerta daitezkeen arazoez herria ez dela erantzule eginen jakinarazi du Udalak ohar bidez.

ONGI PASA BESTAK!!!

**EZPELURA ITURGINTZA S.L.**

Kalefakzioa • Gasa  
Elektrizitatea • Eguzki plakak  
Zoru bero emaila

Tfno.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

OIZKO UDALAK

besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guziei



**BESTAK** → ORAIN HURRENGOAK NOIZ AILEGATU ZAIN

## Giro ederrean joan dira bortz eguneko bestak

Azken eguneko herri-bazkarian 180 lagun bildu ziren

**DATUA**

# 230

**LAGUN**

elkartu ziren abuztuaren 17an, lehiaketako patata tortillak dastatu bidenabar, kantu zaharrak kantatzera.

**Iñaki TELLETXEA**

Joan zaizkigu aurtengo herriko bestak ere. Azken urteotan bezala, arrakasta gehiena izan duten ekitaldiak astelehenero aizkora apustua, asteazkeneko herri bazkaria eta astearteko patata tortilla lehiaketa izan dira.

Herri bazkarian, adibidez, 180 lagun inguru bildu ziren eta bazkal-ondorengo giroa ederra izan zen.

Jendea erakarri zuten bertze ekimena, patata tortilla lehiaketaren ondotik egin zen kantu zaharren afaria izan zen. Hori izan da, aurtengo bestetako

berrikuntza eta jendeak ongi erantzun zuen. 18 patata tortilla lehiatu ziren eta 230 lagun inguruk triapak ederki bete eta beraien kanturako sasoa plazaratu zuten.

**UDALAREN ESKERRAK**

Lerro hauen bidez, Udalak bestetan beraien laguntza eskaini duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie.



ARGAZKIAK: IZASKUN GOÑI ETA IÑAKI TELLETXEA  
Tortilla lehiaketa, aizkora apustua eta herri bazkaria: bestetako ekitaldirik arrakastatsuenak.

**J.RAMOS**  
zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut.  
Sakelekoaz: 637 836 073 · LESAKA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
lagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA



ARGAZKIA: AITOR BERISTAIN

### To, hau tomatea!

Goiko argazkian ikus daitezkeen bi tomate ederrak Migelteneko Aitor eta Natariaren baratzean hartu dituzte. Haundienak 1,35 kilo ditu eta bertzeak kilo bat. Ikusgarriak, ezta?



## ERATSUN

PESTAK → IRAILAREN 8TIK 12RA

# Mindegia eta Larretxea aurrez aurre ariko dira ostegunean

Eta larunbatean Erasun eta Xabier Mindegiaren txanda izanen da

## ASTEAZKENA 8

**09:00etan** txupinazoa. **Ondotik** txistulariek herrian barna ibiliko dira. **11:00etan** Meza Nagusia Lokariko Amabirjinaren omenez. **18:00etan** afizionatuen arteko pilota partidak: lehenengo partidari, lau t'erdian, Bendoiro Taintaren kontra. Bigarren partidari, Tainta-Madariaga, Bendoiro-Azanza. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

## OSTEGUNA 9

**18:00etan** aizkora apustua: Mindegia-Larretxea. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

## OSTIRALA 10

**11:00etan** herriko mus txapelketa. Bikote txapelak bildots bana irabaziko du; bigarrenak bina txuleta eta bina botil ardo eta hirugarrenak bina txuleta. **18:00etan** afizionatuen arteko pilota partidak: lehenengo partidari, lau t'erdian, loldi Jaunarenaren kontra. Bigarren partidari, Tainta-Madariaga, Bendoiro-Azanza. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GABEZIN taldearekin.

## LARUNBATA 11

**14:00etan** herri bazkaria KUELA taldearekin. **18:00etan** aizkora apustua: Ander Erasun eta Xabier Mindegiaren artean. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GABEZIN taldearekin.

## IGANDEA 12

**Goiz-arratsaldez** umeen parkea gaztelu puzgarriekin. **Arratsaldez** dantzaldia AIERRIK taldearekin.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Aizkora apustuak pestetan hutsik egin ezin duten ekitaldietako bat dira. Haur, gazte zein heldu, denak erakartzen dituen.

Eratsungo Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue

PPSOE,  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Berria erosi taldea

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700  
948250371 iñeña · irabeiko monastegia 62, 4ºC · 31011



## GIZARTEA

# Bi sugegorri herriko plazan

Ostatu bazterrean eta gure karriketan ibili dira

### Eneko eta Markel

Joan den larunbat ilunabar batean, bi sugegorri azaldu omen ziren plaza inguruan. Bizpahiru lagunek ikusi zituzten ostatu bazterrean. Ez jakin nondik nora agertu ziren, sugeak ez baitira hola eta hola karrikan agertzen. Jendea, badaezpada, urruti samarretik egondu zen begira, hozka gaiztoa izaten baitu sugegorriak.

### BARCINA ETA SANZBERRO

Abuztuaren 14an, jende handiak izandu-

ak ditugu herrian. Labaiengo errege bidetik barrena agertu ziren diztargi handiko auto ilun dotoreetan: Yolanda Barcina Iruñeko alkate famatua eta Begoña Sanzberro andere txit baztandarra eta Nafarroako Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria. Laguntzaile mordoska ere bazituzten bizkar aldetik, zer gerta ere.

Batzuek diote Mallerrekako eta Basaburuko herri koxkor hauei bisita jator bat egitera etorri zirela eguraldi ederra aprobetxatuz. Urrozen eta Labaienen izandu omen ziren honara ailegatu aurretik.

Beste batzuek diote, berriz, hurbil samar dauzkagun 2011ko hauteskundeen usainean etorri ote ziren,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Mielmari Urrutia buruz burukoan

Azken bi urteetako txapeldunari ailegatu zaio txapela defenditzeko ordua. Finalerdietan da Casino Kursaal torneoa, eta ligaxka moduan ari dira jokatzeko. Lehen partida irabazia dio Matxin IV.ari; tanto alde ederrarekin, gainera, eta TTI-PI-TTAParen zenbaki hau argitaratzerako, bigarrena ere jokatu izanen du Ezkurarekin. Eustiok!

herriko etxeak bisitatu eta beren doktrina za-

baltzera. Uzta jasotzeko, lehenbiziko erein

egin behar omen da eta...



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

## armadenda

# andueza

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

# EZKURRA

PESTAK → AKITU DIRA AMABIRJINAK

## Azken urteotako pestarik jendetsuenak izan dira aurtengoak

Gazteen herri kirol saioa eta herri bazkaria izan dira aipatzekoak

### Fernando ETXEBERRIA

Beste urte batez Amabirjinaren omenez, pestak ospatu ditugu abuztuan. Eta dudarik gabe, azken urteotako jendetsuenak izan dira. Giro ezinhobea izan da eta inolako gorabeherarik gabe pasatu dira. Beharbada, pasadizorik aipagarriena musika talde baten jarraia izan zen. Bost orduz jotzeko kontratuak ziren, baina goizaldeko ordubatean, euren tresneriak hartu eta ospa egin zuten, plazan inor ez zegoelako. Kontratuan goizaldeko hirurak arte jo behar zutela hitzartua zegoen.

### ARRAKASTATSUENAK

Bi ekitaldi nabarmendu behar dira: alde batetik, ikusle asko bildu zituen herriko gazteen arteko herri kirol saioa eta bestetik, herri bazkaria. Jendeak ongi jan eta edan zuen seinale, dantza asko egin zituzten gazteek eta ez hain gazteek Joxe Angelekin.

Mustxapelketan 15 bikotek hartu zuten parte eta txapeldunak Migel eta Bautista izan ziren. Garaikur ederra jaso zuten.

Aurtengo berrikuntza, berriz, Ezkain inguruan egin zen usakume tiroketa izan zen, plater tiroketaren orde egindakoa. Jende asko animatu zen parte hartzera.

### Pilotalekuko obrak

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin frontoia berritu egin da. Teilatua moldatu da, pareta ere margoitu da eta lurzorua ere egokitu da, nahiz eta ezin izan zen akitu hezetan haundia zegoelako. Orain, bero haundia egin duela-eta, lehortu egin da eta geruza berri bat emateari ekin zaio. Honekin pilotalekua itxura ederrarekin geldituko da.

### Ehiza sasoiak prestatzen

Urtero bezala, ehiztariak euren armak prestatzen ari dira zortea aldeko izan dezaten denboraldi honetan, aurreko urteko sasoiak penagarria izan baitzen. Dagoeneko bi-deak eta ehiza-postuak auzolanean txukundu dituzte.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko argazkian herri kirol saioiko protagonistak ageri dira eta gainerakoak herri bazkarikoak –bazkarian eta dantzan–, mus txapelketakoa eta harri-jasotze erakustaldikoa dira.

Txantxangorri elkar-  
tea egoera ekonomiko

onean dago, eta kiro-  
la eta ehiza aldetik ere

hala izatea falta zaio  
orain.

**ttipi-ttapa**  
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,  
deitu telefono honetara:

948 63 54 58





DAKIZUN EUSKARARI PROBETXURIK HANDIENA ATERATZEKO  
**TREBATZE IKASTAROAK 2010: EGA, SAKONTZEA, ALFABETATZEA...**  
**matrikula zabalik!**

# probetxua atera zuk dakizun horri ;-)

## Antolatzaileak

Baztango Udala, Bortzirietako Euskara  
Mankomunitatea, Malerrekako  
Mankomunitatea, Nafarroako Iparraldeko  
Euskara Mankomunitatea

## Laguntzaileak

**aek**



## Babesleak



**GALDETU ZURE HERRIKO EUSKALTEGIAN EDO ZURE UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAN:**

**BAZTANGO AEK:** 948 452 471 (baztan@aek.org), **BORTZIRIETAKO IKA:** 948 637 796 (bortziriak@ikanet.net)

**MALERREKAKO IKA:** 948 451 555 (malerreka@ikanet.net), **LEITZAKO IKA:** 948 610 776 (leitza@ikanet.net),

**LARRAUNGO AEK:** 948 604 704 (jarraun@aek.org)

# NARBARTE

GIZARTEA → ARAZOAK HERRI

## Familia batek herritarren arteko elkarbizitza hondatzen duela eta kezkatua dago jendea

Gizarte Zerbitzuekin bildu eta elkarretaratzeak egin dituzte

### TTIPI-TTAPA

Kezkatuak daude herritarrek. Narbartera etorri zen familia batek arazoak baino ez omen dizkie ekartzen eta ez dute irtenbiderik aurkitzen. Egoerari buelta emateko helburuarekin, Malerrekako Mankomunitateko gizarte langileekin eta bertze eragileekin ere bildu izan dira, baina arazoa ez da oraindik konpondu.

Bertze urratsa elkarretaratzeak egitea izan da. Hala, abuztuaren 20an eta 21ean bi mobilizazio egin ziren egoera salatzeko. *Ez dugu eraso gehiago nahi, aski da, elkarbizitza duina eta Bakean bizi nahi dugu* zioten kartelen gibelean hainbat herritar bildu zen plazan.

### EGOERA ALDATZEKO ESPEROAN

Barrideek prentsara igorritako oharrean agerienez, «familia zakarra eta erasokorra da» eta horren ondorioz, herritarrek «beldurtuak» daude. Azken bolada honetan heriotz-mehatuak hartu dituztela eta herritarren arteko elkarbizitza kaltetu dutela ere salatu dute. Gisa berean, «herritarrok hain arruntak diren gauza batzuk egiteari utzi diogu, plazan edo ostatuan egoteari, adibidez, eraso jasanezina delako».

Miren I. Iriartek TTIPI-TTAPARI adierazi dioenez, bi elkarretaratzeak egin ondotik, pixka batean esperoan egonen dira, «ea zerbait aldatzen den». Herritik alde egitea edo erasoak bertan behera gelditzea eskatzen dute, eta egoerak berdin segitzen badu, mobilizazioak egiten segitzeko asmoa dutela baieztatu du Iriartek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Egoera salatzuz, abuztuaren 20an egindako lehendabiziko elkarretaratzea ageri da irudi honetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Giro ederrean joan dira bestak

Eguraldi eguzkitsua egin du aurten bestetan eta herritarrek, noski, gustura hartu dute udako giroa. Ortziralarekin hasi eta astelehena bitarte iraun zuten ospakizunek eta aipatzekoak dira, Los Zopilotes Txirrius taldearen larunbat gaueko kontzertua, eta igandeko herri kirol saioa. Azken honetan, herriko gazteek omenaldia egin zieten urteetan plazaz-plaza ibili izan diren Oronozko Leoncio Goñi eta Arizkungo Martin Altzubierteri. Orogarri bana oparitu zieten gazteek eta eskerrak eman euren parte-hartzeagatik. Herri kirol saioan gazteak zaharren kontra aritu ziren eta azken hauek atera ziren garaile. Sokatiran ere zaharrek lortu zuten garaipena. Astelehenean, berriz, zikiro eguna izan zen. Bertso-lariek alaitu zuten bazkalondoa eta ondotik Agerralderen emanaldia izan zen.

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua

Santiago, 59 2C - ELIZONDO



OSPAKIZUNAK → BESTAK AKITU ETA HURRENGO ASTEBURUAN

## Leokadiko bestak ospatuko dira larunbat eta igande honetan

Ohi bezala, larunbatean zopak eta igandean, meza, bazkaria eta musika izanen dira

### TTIPI-TTAPA

San Agustin beste lekukoa hartuz, gainean den asteburu honetan, ohiturari segituz, Leokadiko Eguna ospatuko da.

Hasteko, larunbatean, irailak 4, 21:00etan zopak emanen dira. Eta biharamunean, irailak 5, Meza Nagusiaren ondok bazkaria izanen da. Arratsaldean, berriz, DJ Txemaren doinuekin alaituko dira bazterrak.

### Ikasturte berria hastear

Irailaren 6an hasiko dute eskolako haurrek ikasturte berria. Erran, lau neska-mutiko berri sartuko direla: Izei, Naiara, Gaxuxa eta Iraitz. Beraz, denetara zazpi haur egonen dira aurten eskolan.

Halere, ikasturte honetan, asteko egun batean, Labaien, Saldias eta Eratsungo eskole-

DATUA

7

**NESKA-MUTIKO** hasiko dira aurten eskolan. Horietatik lau lehendabiziko aldiz joanen dira.

tatik haurrak etorriko dira zenbait irakasgai lantzeko. Normalean, Doneztebera joaten di-

ra, baina aurten toki aldetik nahiko gaizki dabilenez, Legasara etortzea erabaki dute.

### Bestak

Besten inguruko xehetasunak hurrengo alean aipatuko ditugu.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Apezaren etxeko obrak aitzinera doaz

Apezaren etxeko lanak erritmo bizian doaz. Kanpotik, teilatua eta aitzinaldea moldatu dituzte –ikusirik argazkia–. Orain barreneko aldea egiteko irailetik aitzinera auzolanak antolatuko dira.

**šuteia** | igogailuen instalazioa  
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com

Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

Eskatu informazioa

150€

## EZKONTZA GONBIDAPENAK

100 gonbidapen + 100 sobre  
Zuk nahi dituzun bezala pertsonalizatuak

Anduetzeta, 12 | ETXALAR | T. 948 635 458 | kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com

# GOIZUETA

FESTAK → GUTXIAGO GELDITZEN DA 2011KO AMABIRJINETARAKO

## Bederatzi jaiegun edukiz betetzearen erronkari ederki erantzun diote herritarrek

Eguneko ekitaldiek erantzun ona jaso dute

**Esteban AROTZENA**

Amabirjin jendetsua- goak ezagutu ditugu zalazarik gabe, baina festa herrikoien gaur egungo egoera kontutan hartuz gero, aurtengoek ere erronkari ongi eutsi diotela esan dezakegu.

Gaugiroaren gaine- tik, azpimarratzekoa da, eguneko ekitaldiek jaso duten erantzuna. Esate baterako, hiru otordu herrikoiek –Gazte Egunekoak, presoan alde- koak eta Peñaren bazka- riak– txartelak agortu di- tuzte ia inoiz ez bezala. Pilota-partidetan ere jen- de asko ibili da, bi be- tekada haundirekin –profesionalen jaialdian eta Peñaren Egunean–. Dena den, hirugarren ur- tez jarraian frontoian jendetza haundiena bil- du duen ekitaldia Umor- e Ona Dantza Taldea- rena izan da. Jendetsua

**DATUA**

63

**DANTZARIK**  
parte hartu zuten  
Dantza Taldearen  
festetako saioan.

eta hunkigarria aldi be- rean, haundia baita 4 ur- tetik 60 urte bitarteko 63 herritar ikustea era hone- tako emanaldi batean. Goraipatzekoa da Ele- na, Unai, Itsaso eta Eide- rrek egiten duten lana.

Jendearen parte- hartze aldetik hain arra- kastatsuak ez diren fes- tatako beste osagarri batzuei buruzko ezta- baida mahai-gainean dago aspalditik; txar- rangaz, zezenetaz eta berbenetaz ari gara, ba- tez ere.

Bukatzeko, esan, udako festatako egita- rauaren azkeneko egu- na, Artikutzako Sana- gustinetako erromeria, giro ederrean joan dela aurtan ere.



ARGAZKIAK: ITSASO ETA ENERITZ

Herritarrek giro ederrean pasatu dituzte aurtengo festak ere. Begiratu, bestela, argazkiei.



**ttipi-ttapa**  
FUNDAZIOAK

Dagoeneko  
**780**  
LAGUNEK  
egin dute  
gure alde

**Eskerrik asko**  
Zure laguntza eskertzeko,  
poltsa eder hau izanen  
duzu opari.



**zure laguntza behar du**

eginzazu ttipi-ttaparen alde  
proiektu zenbakia: 15.996

Eska ezazu ttipi-ttaparen proiektua  
aukeratu izanaren frogagiria  
Nafarroako Kutxaren zure bulegoan  
eta ekar ezazu ttipi-ttapara 2010eko  
abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**



OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 16AN

## Mikel Ruiz omendu dute aurtengo San Roke Egunean

Azken 40 urteetan argazki-teka dotorea osatu du

### Ainhoa ANSA

Santio eta Santa Ana eguna pasatu ziren eta ondotik berehalaxe datorren eguna da San Roke, abuztuaren 16an. Aurten, betiko moduan meza izan zen goizean eta ondoren gerturatutako hamaika txistularik goxatu zuten giroa. Lau t'erdiko pilota partida ere jokatu zen Ander Lopez eta Julen Etxenikeren artean. Aurreneko honekirabazi zuen 22-9ko emaitzarekin.

Baina horrez gain, aurten Montebeoko Mi-



ARGAZKIA: HERNANIKO KRONIKAK UTZITAKOA

San Roke egunean Mikel Ruiz omendu zuten antolatzaileek.

kel Ruiz omendu dute antolatzaileek, Aranon azken 40 urteetan egindako argazki-teka dotoreagatik. 1968tik hona ateratako argazkiak

herriaren esku utziko dituela esan zuen Mikel eta dudarik gabe artxibo garrantzitsua izango da herritarrentzat.

### Arano-Urnieta ibilaldia

Hamar bat lagunek egin zuten Aranoatik atera eta Urnietarako ibi-

laldia abuztuaren 10ean. Eguraldiak lagundu ziren eta eguerdirako Besabi jatetxera hurbildu ziren beste hainbeste herritarrekin batera bazkaldu zuten. Giro ederrean ibili ziren eta Arano itzultzean afaldu ere elkarrekin egin zuten batzuk.

Berriz ere horrelako ibilaldi bat egiteko gozoz gelditu ziren han ibilitakoak.

### Arano-Goizueta pilota partida

Santiotan izaten den ohiko pilota partida ezin izan zen jokatu eguraldi txarragatik eta Goizuetako Amabirjin jailetan bigarrena jokatu beharrean aurtengo bakarra jokatu zen. Goizuetak irabazi zuen 22-20ko emaitzarekin.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 • IRUÑEA  
948 230 634



# MERKEALDIA

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak  
maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

## LEITZA

OSPAKIZUNAK → AISIALDIA

# Eskualdeko Talo Lehiaketa jokatu da igandeko Taloaren Egunean

Erakusketak, tailerra, gurdi ibilaldiak, herri kirolak... izanen dira

**TTIPI-TTAPA**

Plazaola Partzuergo Turistikoak Taloaren Eguna antolatu du aurten bosgarren aldiz, Udalaren babesarekin. Igande honetan, irailak 5, eginen da eta ohi bezala, egitarau osatua presatatu dute.

**MERKATUAREN IREKIERA 10:00ETAN**

- Leitzako talo-egileak (Villabona eta Saralegi).
- Artisauak.
- Taloa egiteko eta baserriko tresnen erakusketa.
- Baserriko animalien erakusketa.
- Haurrentzat gurdi ibilaldiak.

**EKINTZA****GASTRONOMIKOAK:****11:00-13:30**

- Eskualdeko Talo Lehiaketa: lehenengo hiru sailkatuentzat sariak banatuko dira kirolak bukatu ondotik (ira-

bazleak 100 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, bigarrenak 50 euro eta hirugarrenak 25). Materiala eta plantxa antolatzaileek paratuko dituzte eta lehiaketan parte hartzea doakoa izanen da. Izenematea, berriz, aurretik (948 507205ra deituta) edo egun berean egin daiteke, 12:00 baino lehen. Parte hartzeko Plazaola Partzuergo Turistikoaren barne dagoen udalerrri batekoa izatea ezinbestekoa da.

- Taloarekin egindako plateren erakusketa: Musunzar, Peritza, Txoko, Elosta eta Lekuonberri ostatuek egindakoak.
- Taloa egiteko tailerra (4-14 urteko neska-mutikoentzat).

**HERRI KIROLAK****12:00ETAN**

- Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa. Tartean ariko da Eneko Saralegi.
- Nafarroako Gizonezkoen Txingara-Eramate Txapelketa. Migel Angel Sukuntzak parte hartuko du. Xehetasunak 43. orrialdean.

## Nafarroako euskal dantzarien eguna eginen da irailaren 11n

Nafarroako euskal dantzarien topaketa egiteko Leitza aukeratu dute aurten. Irailaren 11n, larunbatekin, izanen da eta Aurrera Dantza Taldea eta Euskal Dantzarien Biltzarra burubelari dabilta antolatzen.

Arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. 17:00etatik 18:00etara bitartean, Nafarroako hainbat dantza talde bost auzotan banatuko dira. Amazabal, Patxi

Arrazola, San Jose plaza, Sagastimarrea eta Manuel Lasarte inguruetan dantza emanaldiak eskainiko dituzte. 19:00 aldera plazan bilduko dira guztiak, hitzordu nagusirako. Ekitaldi nagusi honetan, besteak beste, Leitzako Ingurutxo dantztako dute.

22:00etan, berriz, afora eskainiko da. 19 eurotan menua emanen da, baina joan nahi duten dantza talde-

ek aurretik egin behar dute ordainketa, irailaren 4a baino lehen. Euskadiko Kutxako 3035 0058 36 0580011919 kontu zenbakian ordaindu behar da. Afalondon, erromeria izanen da.

Lerro hauek idazterakoan, oraindik zehaztu gabea zen zenbat dantza taldek parte hartuko duten, baina hamar taldetik gora elkartzekoak dira, tartean Aurrerakoak.



ÚTITAKO ARGAZKIAK

**Pestak umore onean**

Haur, gazte zein helduek denek izan dute San Tiburtziotan gozatzeko aukera. Argazkietan, aurtengo txupinazoa bota dutenak, pesta giroan ederki pasatzen ari den neska kuadrilla bat eta ezpatadantzariak ageri dira. Ingurutxoarekin batera, San Tiburtzio Eguneko Ezpatadantza baita dantzen artean garrantzitsuenak. Eta aurten ere ez du hutsik egin. Miguel Olano, Oihan Alduntzin, Iker Urkiola, Joseba Sagastibeltza, Eneko Zabaleta, Mikel Azpirotz, Beñat Zabaleta eta Mikel Oronozek dantzatu zuten. Azken honek, Andoni Zabaletaren erreleboa hartu zuen eta bera izan zen dantzaren bukaeran, Azpirotz eta Olano dantza lagunek aupatu zutena. Dantza hau bukatu zenean, ikurriña ere dantzatu zuten eta ikusleek txalo zaparrada batekin agurtu zituzten dantzariak.

**BEINTZAKO OSTATUA**  
☎ 948 45 00 14  
adela@adela.com  
www.adela.com  
1171 BEINTZA LARREN  
**ORBELA**

**SOULE**  
hileta birtea  
Txing. 442 412 444  
Mig. 429 414 563  
ARRITZUN



**DIRULAGUNTZAK** → LANDA GARAPEN ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUAK BIDERATUKO DU

## 152.000 euroko dirulaguntza eman dio Nafarroako Gobernuak Udalari

Udala aztertzen ari da zein lanetarako erabiliko den

**Juana Mari SAIZAR**

Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak abeltzaintzako dirulaguntza eman dio Udalari. Zehazki, %60ko subentzioa jasoko du eta bi urte hauetan hobekuntzak egiteko izango da.

Aurtengoak azaroren 15a baino lehen bukatuak egon beharko dute eta 2011koak urriaren 31rako.

Aurrekontua 254.000 eurokoa da, eta dirulaguntza, berriz, 152.000 eurokoa izango da. Oraindik Udalak ez daki zehazki zein moldaketa egingo diren, beharrak eta denbora aztertzen ari baita.

**Sutarako egur lotea etxean**

Aurten lehen aldiz, sutarako egurra etxerai-

no ekarri da 120 euroren truke, eta jendea oso pozik azaldu da.

Aste honetan beste hainbat egur lote pista ondoan jarriko dituzte eta zozketa egingo da. Bakoitzak bere lotearen zenbakia udaletxean atera beharko du.

**Kirol ikastaroetan apuntatzeko epea laster zabalik**

Ikasturte berriarekin batera, kirol ikastaroak jarri nahi dira martxan. Aurtengoan, multifitnes, mantenimenduko gimnasia eta *Gustura gure*

*soinean Aresoko gimnasia* izenekoak proposatu ditu Kirol Mankomunitateak.

Ikastaroak aurrera ateratzeko, bakoitzean gutxienez sei lagunek eman beharko dute izena. Eta multifitnesen kasuan egunak eta ordu-

ak zehaztuak daude: astelehen eta asteazketan izango dira, 17:30etik 19:00etara. Prezioa 80 eurokoa izango da. Gainerakoe-na zehaztu gabe dago.

Apuntatzeko epea, bestalde, irailaren 15ean hasi eta 30ean bukatuko da. Udaletxean egitekotan, ostiraletan egin beharko da 09:00etatik 11:15era eta bestela, astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 15:00era, 948 604545 telefonora deituz.

Ikastaroak urriaren 4an hasiko lirake eta maiatzean bukatu.

**Mendi martxa igandean**

Igande honetan, irailak 5, egingen da hirugarren aldiz Aresoko Mendi Martxa. Gure mendietan barna, 26 kilometro eta 1.200 metroko desnibela duen itzulia egin beharko dute mendizaleek.

Xehetasun gehiago aldizkari honetako 43. orrialdean aurkituko dituzue.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

**Herriko pestak umore onean**

Oso giro alai eta ederrean pasatu dira pestak, eta denen parte-hartzea eta elkarlana aipatu eta goraiatu beharrean gaude. Hainbat otordu –sei zehazki– etxetik kanpo egin dira, plazako txosnan, eta jende asko eta asko aritu da lanean. Antolakuntza ona nabaria izan da, baina onena hainbeste lan egin ondoren, pestarako gogoia ere gelditzen zela izan da eta plazan gozatu ahal izan da.

  
**Kulturkari**  
diseinugrafikoa publikitatekoa

Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar  
Tel. 948 635 458 - Faxa 948 635 457  
kulturkari@ttipi.net



Enpresa batek behar ditzakeen diseinu grafikoko arlo guztiak egiten ditugu

# BAZTAN

**BESTAK** → ELBETEKOKAK IRAILAREN 10ETIK 14RA

## Gurutze Sainduaren Egunean akituko dira bortz eguneko bestak

Baztan Zopak eta zikiro jaterako txartelak ostatuan daude salgai

alaituta. **Ondotik** asto karrera. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia SALABERRIren eskutik. **22:00etan** Mutildantzak plazan. **00:30ean** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

### ORTZILERIA 10 Mezpera

**18:00etan** suziria eta ezkil jotzea. **21:00etan** Herriko Ostatuan Baztan Zopak, FRANTZISKOK alaituta. **00:00etan** txopo goratzea. **Ondotik** ELBETEROCK: KOMANDO KASTAÑA, AMETS ILUNAK, AIZKOR ERAUNTSIA eta TALDE SORPRESA.

### LAUNBETA 11 Zikiro Egune

**09:00etan** argisoinuak. **14:00etan** zikiro-katerin jatea SALABERRIK

### IGENDIA 12 Zozketa Egune

**09:00etan** argisoinuak. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** Mutildantzak. **18:00etan** Patxin Potxin ikuskizuna haur eta gurasoentzat. **18:30ean** bat-bateko mus eta partxis txapelketa. **20:00etatik 22:00etara** zozketa (lau pertsonendako afaria, bi pertsonendako afaria eta bi gasna zozketatuko dira).

### ASTELEHENA 13 Herriarren Egune

**09:00etan** dianak. **13:00etan** herri bazka-



ARGAZKIAK: ITZIAR BIDEGAIN

Goian ageri diren argazkiak suziria botatzeko momentukoa, mus txapelketakoa eta zikiro jatekoa dira.

ria Karrikatxarren, FRANTZISKOK alaituta.

### ASTEARTEA 14 Gurutze Sainduaren Egune eta Haurren Egune

**09:00etan** dianak. **11:30ean** Meza Nagusia. **Ondotik** Mutildan-

tzak plazan eta luntxa Herriko Ostatuan. **14:00etan** haurren bazkaria frontoian. **18:00etan** Gorriti eta bere animaliak. **Ondotik** japoniar bonbak plazan. **19:00etan** txokolatada. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDERen eskutik. **Ondotik** GAIZUA NI.

### OHARRA

Baztan-Zopetara joan nahi duenak txartelak ostatuan aurkituko ditu salgai, eta zikiro-katerin jatekoak, berriz, ostatuan eta Karrika ostatuan eros daitezke.

ONEI PASA BESTAK!

**ELBETEKO POSADA**

4 tokiak behar duzuenak  
eta agerriak dituz!

Eguneko menua  
Aste hondaretan karta  
Enpresa oforduak  
Familia bikurak  
Bataioa ...

4. Errepublikaren 1 / 31700 Elbete (Herriaren)  
Tel: 948 581 807 • 948 581 853  
info@posadaelbete.com  
www.posadaelbete.com

ANEXITONEA  
Hostaleria

24 ingela haurrentzat - Apurkalekua  
Aste gutxiago gure puztetan - Haur musika eta TI  
Gela berria sokaletan eta besterentzuekin

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
hostal@anexitonea.com • www.anexitonea.com

Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!

**Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!**

proiektu zenbakia:  
**15.996**



# ARIZKUN BAZTAN



**BABES OFIZIALEKO ETXEAK BAINO MERKEAGO  
ERAIKIN ZAHARRAK MOLDATU, TXALETAK ERAIKI,  
PISU EDO BASERRIAK ZAHARBERRITU...**

**ESKATU INFORMAZIOA**



Promociones  
**Lindutx Baztan, S.L.**

Plaza Baztan Berr, nº 6 bajo  
31700 Elizondo  
Tel. 948 580 344  
info@lindutx.com  
www.lindutx.com



**Hargibel Eraikuntzak, S.L.**

# BAZTAN

GIZARTEA → ERDIZKO HARROBIAREN AFERA HIZPIDE

## Magnaren itzala Erdizen berriz ere

Zilbeteko harrobiaren proiektuan Erdizkoa ere aipatzen da

### Maite OTEIZA

Magna enpresak Erdizen harrobi berri bat irekitzeko asmoa zabaldu zuelarik, gizarte mugimendu handia sortu zen. Baztandarren presioa zela eta, proiektua gorde eta Zilbetin bertze harrobi bat irekitzeko pausua hasi zen ematen. Badirudi, proiektua aitzinerat doala, baina honekin baterat, Erdizi buruzko asmoa berriz ere plazaratu da.

Magnaren Zilbetiko proiektuan, Erdizko harrobia behin eta berriz aipatzen omen da. Hau dena, Udalaz Gaindiko Plan Sektorial baten barnean kokatua dago. Alegia, Udalaren gaineratik dagoen proiektua

izanda Gobernuaren esku geldituko litzateke. Zilbetiko harrobiaren irekiera, une honetan behar duten materiala eskuratzeko izateaz aparte, Erdizko harrobiari bidea zabaltzeko izanen litzateke. Alderdi hau LIC edo babestutako eremua izanda ere, errazago edukiko lukete.

Berria Baztanerat ailegatu bezain fite, batzar bat antolatu zen abuztuaren 25ean. Honen berri emateaz gain, Zilbeti aldekoiei laguntza eta babesa emateko. Berriki, berriz, udan jendea erlaxatzen dela aprobetxatuz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean alegazioak aurkezteko epea argitaratu dute, aste bateko epea izanik.

Helburua bai Zilbetikoa eta bai Erdizko harrobian kontra dauden guztiak elkarlanean, Nafarroako Gobernuaren aitzinean alegazioak aurkeztea da. Hortaz, batzarrean adostuta,



ARGAZKIA: ONDIKOL

### II. Argazki lehiaketaren sariak banatu ziren Bertan Egunean

Bertan elkarteak bigarren urtez antolatutako argazki lehiaketaren sari banaketa egin zen abuztuaren 7ko Bertan Egunean. Aurtengoan Juan Carlos Olaetxea beratarrak irabazi du lehendabizko saria, Mitxel Etxenike erratzuarrak bigarrena eta Juan Lameirinhas elizondarrak hirugarrena. Miguel Quevedo eta Mari Joxe Alaña, Bertan elkarteak kideen eskutik eskuratu zituzten sariak. Lehendabizlako saria 400 euroko erosketa bonoa zen, Bertan elkarteak 80 komertzioetako edozeinetan erosteko eta Olaetxearen orde, Iratxe Oterok jaso zuen. Bigarren saria 200 euroko erosketa bonoa zen eta hirugarrena 100 euroko erosketa bonoa. Lehiaketara aurkeztu diren argazkietako batzuk Bertan elkarteak argitaratuko duen 2011ko egutegian agertuko dira.

Baztango herri guztietarat alegazioak egiteko agiriak banatzekoak ziren, aste honetan Nafarroako Gobernuko bulegoan aurkezteko.

### Irurritako denda bakarra ixtear dago

800 bizilagun inguruditu Irurritak, eta gaur egun duen denda bakarra, Paulino edo Spar, ixtear dago. Bizitza luze baten akabaila hurbiltzen ari zaio M<sup>a</sup> Puy eta

Nieves Urtasun ahizpeiz jubilazio garaia ailegatu zaielako.

Beltranea etxean, Urtasundarrek okindegia eduki zuten urteetan, janari-dendarekin batera. Iruritan zeuden bi okindegiek, Urtasunek eta Muruk, Elizondoko Panifikadorearekin bat egin zutenean, ordea, herrikoak desagertu egin ziren. Spar denda haunditzeko asmoz, ogia egiteko tokira lekualdatu

zuten denda, eta urdaitegia eta janari-denda bihurtu zen.

Baina urteak pasatu dira, eta gibeletik etxeko inor ez dagoenez, esku-aldatzea erabaki dute, ea norbaitek negozio honekin segitzeko interesa duen.

Sei denda izatetik (Iriarte, Gernoxahar, Azteberri, Arkialdean, Beltranean eta Sute-gainean), dendarik ez izatera pasa daitezke Irurita.



**Bereziki ehiztarientzat**

Elikadurarik hoberrena zure txakurarentzat

animalien kalitatezko elikatzeari, 40 urtetako eskaintza emanez  
beste produktu, baldintza edo zerbitzuentzako gurekin kontaktuan jarri.

> Dog Sport  
% 25 proteina % 10 gantza:

**10 €**  
BEZ bane

> Dog Energy  
% 33 proteina % 15 gantza:

**13 €**  
BEZ bane

• 20 Kg-ko zakuak

PENTSUA ETXERA  
ERAMATEA DOHAINK

**ZAGUA**  
ZABUR, PENTSUA

Frantziako errepidea, s/n  
31714 Erratzu  
M. 647 525 363



HEZKUNTZA → OSPAKIZUNAK

## 40 urte beteko ditu ikasturte honetan Baztan Ikastolak

### Urteurrenaren harira, Pirritx eta Porrotx irailaren 19an

**TTIPI-TTAPA/ M. OTEIZA**

Ikasturte berezia izanen da aurtengoa Baztan Ikastolarentzat. Izan ere, irail honetan martxan paratu zene- tik 40 urte beteko ditu

Nafarroako lehen ikas- toletako bat izan ze- nak, Baztangoak, ale- giak. Eta urteurrena modu berezian ospa- tzeko asmoz, ekimen bereziak iragarri di- tuzte.

Uda honetan, erra- terako, argazki zaha- rrak biltzen aritu da ikastolako Guraso El- karteak bere blogean (<http://baztanikastola- gurasoelkarte.nireblog.- com/>). Baina horrez ga- in, irailaren 19rako, Pi- rritx eta Porrotx paila- zoak gonbidatu dituzte. Egun horretan, 17:00- etatik aitzinera, bi pai- lazo ezagunek euren ikuskizuna eskainiko dute Lur Aretoan.

**SARRERAK**  
Toki hauetan esku- ra daitezke Pirritx eta

Porrotx ikusteko sa- rrrerak: Elizondoko An- txitonean; Lesakako Atxaspi ostatuan; Be- rako Errekalde ostatu- an eta Doneztebeko Ti- ti ostatuan.

### Indusketak Amaiurren

Aurten berriz ere, bosgarren urtez, ze- hazki, Aranzadi Elkar- tea, Amaiurko herria eta Udala elkarlanean ari- tu dira Amaiurko Gazte- luko indusketa lanetan.

Abuztuko lehenda- biziko hamabortzal- diko lanek XIV. mende- ko harresiak eta dorrea zaharberritzea izan zu- ten helburu, eta batez ere, harginen lana izan zen.

Betidanik zegoen mendiko pista XX. mendekoa zen, eta ho- nen azpian XVI.-XVII. mendeko hainbat pa- reta agertu dira.

Bisitariak hurbilduta ikusiko duen lehenda- biziko gauza Baluarte- ko muturra izanen da, eta ondotik barnekoal- dean, XVI.mendeko ur- depositua, galeria... daude. Gibekekoalde- an, berriz, Erdi Aroko gazteluaren paretak ageri dira.

Hortaz, hemendik aitzinera, jatorrizko sar- bidetik sartuko gara,



**PERTSONAIA**  
Leire RAMOS

Berroetatik Lizarrara, BKTtik Itxakora

16 urte baino ez di- tu Leire Ramos Ber- roetako gazteak eta azken urteotan hain- bertze gustatzen zaion kirola egiten aritu da BKT Baztan- go Kirol Taldean: es- kubaloia. Azken den- boraldia BKTko ka- deteen A taldean egin du, atezain lane- tan, baina orain, au- kera berria sortu zaio: Lizarrako Itxako tal- dearen deia hartu eta harat joatea erabaki du. Dagoeneko den- boraldia eta taldea estreinatu ditu, bai- ta bisitokia ere. Zor- te on!

ondarearen aldetik izugarritzko aurkikun- tza eta balio haundikoa dena ikusiz. Aurkitu di- ren aztarnen artean XVI. mendeko zerami- kak, proiektilak eta ezpata oso bat daude.


Erran behar da, in- dusketa hauek Euskal Herrian egiten direnen artean, osorik euskara hutsez egiten diren ba- karrak direla.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### 75.675 euro kostatzen da Aritzakun-Urritzateko pista konpontzea

Ekaineko eurite gogorren ondorioz, Aritzakun-Urritzateko pista hondatua gelditu zen. Eta horregatik erabaki zuen Udalak konpontzea. Oihaneke lanetan 2010/2011ko kanpainaren barne egin ditu lanak. Bide-zorua kaltetua gelditu zelako, 13 kilometroko tartean zabor-legarra bota da, eta 3 metroko zabalera bidea gelditu da -4. argazkia-. Horrez gain, kunetak ere garbitu dira, hostoz eta urak herrestan eramandako bertze materialak beteak zeudelako. 40 cmko sakoneran egin da garbiketa, 13 kilometroko tartean. Kanteneatik hurbil, bertzalde, ezponda erori zen pasabide estua utziz -2. argazkia-. Kasu honetan, eskabazio lanak egin dira pistaren zabalera berreskuratzeko -3. argazkia-. Eta toki horretan, eskoilera edo harri-lubeta ere eraiki da. Aipatu, halaber, harrobitik leku horretara dagoen distantzia altuak garestitu egin duela harri-lubeta egitea. Bidegorritan aldera, berriz, amildegi batetik harriak eta hondakinak erori ziren pista, hor zegoen hodi bat estaliz -1. argazkia-. Hori ere garbitu da. Lanek 75.675,75 euroko gastua sortu dute.



# ZUGARRAMURDI

AISIALDIA → IKUSKIZUNA

## 1609ko gertakariak gogoan antzerkia izanen da larunbat honetan leizeetan

Sorginak izatea leporatuta hil zirenen omenez prestatutako ikuskizuna da

### Koro eta Margari

1609. urtean Iparraldeko hainbat herritan sorginkeria zela-eta, ehunka lagun hil zituzten. Hain zuzen, jende haren omenez, eta historia hura gogoratzeko, Iparraldean antzezlan bat prestatu zuten, *Iduzki lore* izenekoa. Eta azken boladan, alde hartako zenbait herritan antzeztuz dabilta.

Gure herrian gertatutakoa han gertatu zenaren ondorioa izan zen. Hori dela-eta, Akelarre Elkarteak antolatutako, larunbat honetan, irailak 4, 20:30ean antzezlan hori ikusteko aukera izanen dugu leizeetan. Sarrrera zortzi eurokoa izanen da.

### 150 lagun 'Akelarre' filma ikusten

Abuztuaren 21eko gauean, leizeetan paratutako pantaila erraldoi batean, *Akelarre* pelikula eskaini zen. Gau hori seguraski uda hontan izan dugun eder eta epelena izan zen, eta etorritako 150 inguru



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Argazkian ageri den taldea da Iduzkilore antzerkian parte hartzen duena.

ikuslek ederki gozatu zuten, bai pelikularekin, eta bai leizea gauez nolakoa den ezagututa ere.

Berezitasun bat ere bazuen: film hau bera toki berean eman baitzen orain duela 27 urte, 1983. urtean, leizeetan antolatu zen lehenbiziko gaupasan.

### Bestetako zozketa

Hauek dira bestetako zozketaren zenbaki sarituak: 1.029 (La Perla Talasoterapia); 1.005 (Bildotsa eta arno kaxa) eta 495 (kutxa sorpresa).



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

### Hasi dira onddoak

Onddo ederrak agertzen hasi dira. Honako hauek Urdazubiko Manoli Azkarragak hartuak ditu.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA





# NAFAR MENDI

## merkatalgunea

Arraioz | Baztan



### NAFAR MENDI / HIPERSIMPLY MERKATALGUNEAK

GASOLIOA: 0.99€

JATETXEA: MENUAK 8.50€ eta 12.50€tan

HIPERMERKATUAN: EGUNERO HOBETZEN DUGU KALITATEA:

-FRUTAK - BARAZKIAK: ORAIN "EXTRA" MAILA PREZIO BEREAN

-HARAGIA: NAFARROAKO TXAHALA EDO ARATXEA

10€KO HARAGI-EROSKETAGATIK, OGI BAT OPARI

-ARRAINAK: 12.50€ EROSITA ZAINZURI EDO ESPARRAGO LATA BAT OPARI



**BETIKO PREZIO MERKEAK. EROSLEAREN NAHIA BETETZEA DA GURE HELBURUA**

ONGI ETORRI BAZTAN / BERTIZARANA / BORTZIRIAK / MALERREKA / LEITZALDEA / ANUE-ULTZAMA

**ZORTE ON  
ESKOLAN**





# SARA

BESTAK → BURUILAREN 11TIK 15ERA

## Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Ximun Cazaubon bertsulariak ariko dira azken egunean

Ekitaldiz beteriko bestak antolatu ditu Besten Komiteak

### LARUNBATA 11

**17:00etan** Sara Korrika, 10 kilometroko lasterkaldia. **22:00etan** AIZKOR ERAUNTSIA eta ZE ESA-TEKI taldeen kontzertuak. **00:00etan** MIKELHATSEkin dantzaldia. **Gau guzian** Iparraldeko gaiteroak karrikak animatzen.

### IGANDEA 12

**10:00etan** Meza Nagusia Urruñarrak klikarekin. **Ondotik** Tamborrada Mariñelak gaiteroekin itzulian itzuli. **10:30ean**

luzean errebotean: Luzaz Gazte (Donibane Lohizune), Azkaindarrak Bat (Azkaine) taldearen kontra. **16:30ean** gaiteroak, joldunak eta ahate jokoa. **Segidan** euskal kirolak: sokatira, lasto altxatzea, lasto botatzea eta orga altxatzea. **19:00etan** aperitifa Sarako Kantariekin. **22:00etan** kantaldia AMAIA RIOUSPEY-ROUS-ekin. **23:30ean** dantzaldia SAMAIN-ekin. **00:00etan** suzko zezena. Txarngaitak karrikak animatuko ditu.

### ASTELEHENA 13

**Goizean** itzulia gaitero eta txistulariekin. **10:30ean** luzean errebotean Kapito Harri (Uztaritze), Lapurdiko selekzioaren kontra. **13:30ean** zikro jatea I kastolak antolatua. **16:30ean** jokoak: jendar-



ARGAZKIA: IDOIA ERRANDONEA

Gutti gelditzen zaie gogoz dauden herritarrei besta giroan murgiltzeko.

me eta kontrabandistak. **17:00etan** trinketean esku huska: Pleka Txapelketan, E.P.B.ko torneo ofiziala: lehen finalerdia: Ibarrolla-Harismendy, Waltari-Lazkanoren aurka. 2. finalerdia: Alfaro-De Ezkurra, Lambert-Etchetoren kontra. **18:30ean** dantza saioa Zazpiak Bat taldearekin. **20:00etan** trikitalariekin aperitifa. **22:00etan** kantaldia INAHALArekin. **23:00etan** dantzaldia LARZENAK-ekin. **Gau guzian** Los Incansables txaranga.

### ASTEARTEA 14

**Goizean** itzulian itzuli gai-

tero eta txistulariekin. **09:30ean** Paxaka txapelketa trinketean. **10:30ean** luzean errebotean: Noizbait (Hazparne), Spuc (Senpere) taldearen kontra. **17:30ean** errebotean, Joko Garbi (lehen partida Sarako Izarra pilota eskolako gazteekin). **18:15ean** Joko Garbi helduen partida: Luzaz Gazte taldea (Eneko Sarratia, Eneko Pelletrat eta Ximun Destailac) eta Hardoytarrak (Frédéric Karrikaburu, Peio Etxeleku eta Laurent Albistur). **19:00etan** Mutxikoak Kuxkuxtu txarngarekin. Txalaparta ere izanen da. **20:30ean** Gaztetxean USA United Sara of America. **20:30ean** trikitalariekin aperitifa. **22:00etan** GAUBELA taldearekin dantzaldia. **Gau guzian** Kuxkuxtu txaranga karrikak animatzen ariko da.

### ASTEAZKENA 15

**Goizean** itzulian itzuli gaitero eta txistulariekin. **09:00etan** trinketea zabaldeian azienda lehiaketa Sarako laborarientzat (Primak: 1.700 euro). **10:30ean** plazan haurren jokoak (euria-ekin, kiroldegian). **10:30ean** trinketean, Pleka Torneoeko partida: Agirre-Sorhouet eta Karrikaburu-Urdanpilleta. **17:00etan** plazan, esku huska. Euskal Herriko bestetako esku pilota txapelketaren finalerdia. **18:30ean** trinketean esku huska: E.P.B. Torneoeko finala. **Aldi berean**, trinketean eta plazan bertsulariak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Ximun Cazaubon. Gaia emaiten Karlos Aizpurua. **Gero** tonbolaren zozketa. **19:30ean** Anne Bidalunekin aperitifa eta kontzertua. **22:00etan** dantzaldia KIKI BORDATXOrekin. **23:30ean** suzirien tirokada. **00:30ean** dantzaldia XITOAK taldearekin. **Gau guzian** Los Incognitos-ek karrikak animatuko ditu.

**SARA**  
HERRIKO ETXEA

Plazan elkar ikusiko dugulakoan Herriko Kontseiluak besta onak opatzen dauzkitzue

SARARI BALHOREAREN ETA LEYATASUNAREN SARBIA EHANEA 1495 XIV-EN 1493-AN

HERRIKO ETXEA  
EDXNTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 055 95 42519  
Muzen eta Vintropia

**SARA**



HIRIGINTZA → UDALA

## Dantxarinako saihesbidearen aferan arrazoia eman dio justiziak Udalari

Herriko Etxearen errekurtoa onartu eta erabaki irmoa eman du

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiak (TSJN) arrazoia eman dio Udalarari Dantxarinako saihesbidearen eta herriko sarbidearen erakuntzaren aferan. Erabakia irmoa da eta ez du errekurtoa jartzeko aukerarik ematen.

Gogoratu behar da saihesbideko lanen adjudikazioa zuzenean eman zelakoan eta ez lehiaketa bidez, bi bizilagunek apelazioa aurkeztu zutela. Lehen apelazioa ez zen onartu, baina berriz ere bi bizilagunek errekurtoa aurkeztu eta arrazoia eman zuten epaitegiak, kontratazio prozeduran akatsak zeudelakoan. Santiago Villares alkateak, ordea, gertatutakoaz zera azaldu zuen: «adjudikazio-

ra hiru enpresa aurkeztu zirela zioten paperak bagenituen, baina horietako bik ez zuten azkenean parte hartu. Horregatik hirugarrenari eman genion proiektua». Hala, Udalak errekurtoa aurkeztu zuen dokumentazio guziarekin eta orain arrazoia eman dio Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiak.

Alkateak erran duenez, «erabaki honek herritarren interes orokorra bi bizilagun horien gaitetik jartzen du. Saihesbidea beraien apartakalekuaren ondotik pasatzea nahi zuten, herri guziari mesede egiten dion tokitik pasatu beharrean».

### Argiteria berria leizean

Ikaburuko leizeak ireki zirenetik 20 urtera, LED teknologian oinarritutako argiteri sistema berria paratu dute. Teknologia hau, gisa honetako monumentueta-rako argiteri ekologiko eta egokiena dela diote: ez omen du leizea-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

### Errotaren Eguna arrakastatsua

Burdinaren Eguna ospatu zen abuztuaren 7an hirugarren urtez. Historiak dioenez, duela bi mende arte, Bizkaitik zetorren minerala portuz portu Zibururaino, eta handik, Urdazuri errekan goiti eramaten zuten Azkaineraino eta, azkenik, gurdietan Urdazubiko San Esteban basiliza ingururaino. Handik, Salbatore monastegiak zituen oletan banatzen zen, burdina lantzeko. 1641. urtean 200 langile omen zituzten ola hauetan, kontuan hartuz Somorrostroko 10.000 kintal burdin jasotzen zituztela. Duela hiru urte berreskuratu zuten Urdazubiko Udalak eta Bertiz Partzuergo Turistikoak ekitaldia eta Donibaneko Itsas Begia elkarteak egin zuen portuz portuko bidaia Bilbotik. Aurtengoan ez da itsas bidaia-rik egin, baina Boniren idiek minerala garraiatu zuten Salbatore monastegi ingururaino, Javier Larraalde txistulariaren eta Juan Miguel Iriarte atabalariaren laguntzaz eta mojek urrearen truke erosi zuten, materialaren kalitatea ongi aztertu ondotik. Joan den urtean baino jende gehixeago bildu zen eta giro ederren igaro zen dena.

ren habitat naturala hondatzen duten goroldio eta likenak ugaritzea uzten, leizearen berezko espeziea den Abasola Sarea armiarna txuri eta itsua, Munduan bere

ezaugarriak dituen bakarra, babesten du eta energia kontsumoan aurrerapen haundia eraginen omen du.

Gainera, gaur egun, leizeen interpretazioa-

ko gune berria egokitzten ari da sarreran, heldu den neguan inauguratzea aurreikusia dagoena, bisitariei leizeen informazio historikoa eta xehea emateko.

**ARMUA JAIETENA**  
  
T. 948 590 131  
Ezgarerazkoak: 948 590 131  
URDAZUBI

Dantxarinetik 2 km-tara  
**MONTXO** OSTATUA  
TARBAKO-DENDAK  
ANZAN-BORDA · URDAZUBI  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

# SENPERE

AZPIEGITURAK → ELIZA

## Baionako apezpikuak Otsanzko kapera berritua benedikatu du uda huntan

Lapurdiko otoitz leku zaharrenetakoa da

### Franck DOLOSOR

Uztailaren 22an, Santa Madalena Egunean mundua bildua zen Otsanzko kaperaren inguruan, egun hortan Marc Aillet Baionako apezpikuak otoitz toki berritua benedikatu zuen. Kapera hori toki zinez berezian kokatzen da Uztaritzeko eremuan, Senpere eta Zuraideko muga-mugan. Lapurdiko hiru herriek elgar hunkitzen dute kaperaren atariaren ondoren eta lehen auzoak Senpereko eremuan bizi dira.

Berriki arte, kapera arrunt desegina zen, denborarekin harri gehienak lurrerat erori baitziren. Duela urte batzuk René Clément zinegile zenak eta bere andereak erosi zuten kaperaren eremua eta berehala otoitz lekua berriz



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Otsanzko kapera tikiiegia izan zen mundua biltzeko eta jende ainitzek kanpoan egon behar izan zuten. Gurutzeta daramana Agapit Bidegain senperrak da, kaperako lehen auzoa.

altxatzea deliberatu zuten. Clément jaunaren ondoren, alargunak xede berarekin segitu zuen aitzinera eta kapera osoki altxatu du horrek sortu duen gastu haundiarekin.

### HISTORIA LUZEA

Otsanzko kaperak historia luzea du, iduriz Lapurdi aldeko otoitz leku zaharrenetakoa baita. Girixtinoak hor gor-

detzen omen ziren Erdi Aroan eta San Leon Baionako lehen apezpikuak meza erran omen zuten hor bederatzigarren mendean.

Aitzineko gizaldian, euria egin zezala eskatzeko beilak egiten ziren Otsanz alderat. Adin haundiko senperrak batzuek gogoan dute oraino otoitzak egiten zizutela hantxe duela zontz bait urte. Gisa hor-

tan, 1942an, meza eman izan zuen han Félix Karrikaburu erretore senperrak. Motxoa etxaldeko semea han ibili zen Uztaritzeko seminarioan ikasten ari zelarik.

Clément familiaren indarrari esker Otsanzko kapera berriz xutik dago eta berriz ere zabalik girixtinoak eta Santtiagoko bidea egiten dutenak errezibitzeko.

### Antzerkia euskaraz

Iduzki Lore antzerkia Urruñan erakutsi zuten agorrilaren 28an eta orain bertze emanaldiak izanen dira buruila- ren 2, 3 eta 4an Lazkaon, Domintxinen eta Zugarramurdin. 1609an sorginen kontra egin ziren epaiketak eta jazarpena gogoratzen ditu antzerki honek. Peio Chipi senperrak eta Joseba Aurkenerena urruñarrak idatzi dute Iduzki Loreren testua eta Manex Fuchs antzerkilariak egokitu du taula gainean antzezteko.

### Argazki lehiaketa

Aurten ere, argazki zoingehiagoka apailatu du Herriko Etxeak. Oraingo gaia besta egunak dira eta beraz, irudi ederrak ikusi ahal izanen dira dudarik gabe besta ainitz eta koloretsuak ospatzen baitira gure herrian. Argazkiak urriaren 31 aitzin igorri behar dira eta irabazleak 300 euroko saria sartuko du sakelarat.

# Rekordatorioak

egiten ditugu

*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*



KULTURKARI • Andutzeta, 12 • ETXALAR • 948 635 458



## EZKONTZAK

**Iñigo Mangado Oyanarte** eta **Leire Ordoki Gonzalez**, Doneztebekoa eta Arantzakoa, uztailaren 31n Arantzan.  
**Joseba Mariñelarena Olano** eta **Miren Irisarri Martiarena**, Leitzakoa eta Legasakoa, uztailaren 14an Legasan.  
**Ismael Elizalde Santesteban** eta **Maria Larretxea Etxeberria**, Iturengo eta Legasakoa, uztailaren 10ean Legasan.  
**Patxi Urtxegi Goñi** eta **Maider Bidegain Indart**, Berakoa eta Doneztebekoa, abuztuaren 21ean Legasan.  
**Xabier Goizueta Altamira** eta **Ainara Narbarte Apeztxea**, Goizuetakoa, uztailaren 31n Goizuetan.  
**Alberto Otxoteko Irastorza** eta **Garbiñe Mihura Sansiñena**, Lesakakoa eta Zugarramurdikoa, ekainaren 12an Lesakan.  
**Aritz Nogues Arnedo** eta **Keyla Regina Da Silva**, Donostiakoa eta Brasilgoa, abuztuaren 9an Lesakan.  
**Jon Almandoz Elizalde** eta **M<sup>a</sup> Noelia Etxarte Altzuri**, Berakoa eta Lesakakoa, abuztuaren 21ean Lesakan.  
**Ollivie Louis Marie Frédéric** eta **Bertrand du Chazaid Camille Marie Anne**, uztailaren 30ean Saran.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**June Mazzucco Maia**, Iruñekoa, ekainaren 26an.  
**Estitxu Maskotena Laborde**, Urdazubikoa, ekainaren 28an.  
**Irati Aranburu Moncayola**, Berakoa, uztailaren 10ean.  
**Eñaut Oteiza Larre**, Elizondokoa, uztailaren 7an.  
**Iban Fernandez Gutierrez**, Berakoa, ekainaren 29an.  
**Maren Irigoien Arretxea**, Sunbillakoa, ekainaren 20an.  
**Claudia Prim Juanotena**, Legasakoa, uztailaren 31n.  
**Eneko Iribarren Juanikorena**, Zubietakoa, uztailaren 27an.  
**Iraia Korta Bikuña**, Lesakakoa, uztailaren 8an.  
**Garazi Etxepare Aleman**, Lesakakoa, uztailaren 15ean.  
**Miren Janitz Irigoien Altxu**, Lesakakoa, uztailaren 18an.  
**Beñat Bereau Arribilaga**, Lesakakoa, abuztuaren 1ean.  
**Noa de Prado Alberdi**, Lesakakoa, abuztuaren 13an.  
**Ekaitz Irazoki Mendizabal**, Lesakakoa, abuztuaren 19an.  
**Nabil Bensaid Ezzahar**, Sunbillakoa, abuztuaren 20an.  
**Lore Fagoaga Salaberri**, Sarakoa, abuztuaren 8an.  
**Andoni San Martin**, Sarakoa, uztailaren 28an.  
**Oihan Goienetxe**, Sarakoa, uztailaren 24an.  
**Intza Lasaga**, Sarakoa, uztailaren 14an.  
**Irati Altxu Martin**, Iturengo, uztailaren 22an.  
**Izei Bereau Mindegia**, Iturengo, abuztuaren 19an.

## HERIOTZAK

**Elena Anton Alberro**, Goizuetakoa, abuztuaren 14an, 76 urte.  
**Jean Joseph Larzabal**, Sarakoa, abuztuaren 7an.  
**Madelene Plumcocq**, Sarakoa, uztailaren 28an.  
**Milagros Igartzabal Salvador**, Lesakakoa, uztailaren 19an, 77 urte.  
**Manuel Aranbillet Irazoki**, Berakoa, uztailaren 19an, 59 urte.  
**Silvia Telletxea Altzugarai**, Berakoa, uztailaren 20an, 85 urte.  
**Agustin Goñi Bergara**, Arantzakoa, uztailaren 21ean, 54 urte.  
**Fermin Iraola Rosas**, Berakoa, uztailaren 27an, 42 urte.  
**Rufina Etxebeste Irigoien**, Berakoa, uztailaren 26an, 87 urte.  
**Angel Sarobe Bereau**, Lesakakoa, uztailaren 29an, 66 urte.  
**Juana Sagastibeltza Lasarte**, Leitzakoa, abuztuaren 1ean.  
**Josefa Ezkurra Baleztena**, Zubietakoa, abuztuaren 4an, 103 urte.  
**Francisca Alduntzin Caballero**, Leitzakoa, abuztuaren 4an, 83 urte.  
**Fermin Mazizior Larralde**, Arantzakoa, abuztuaren 6an, 88 urte.  
**Martin Jose Labaien Lasarte**, Leitzakoa, abuztuaren 20an, 86 urte.  
**Natividad Iguzkiagirre Irigoien**, Iganztzikoa, abuztuaren 16an, 87 urte.  
**Asuncion Aleman Aleman**, Erratzukoa, abuztuaren 19an, 85 urte.  
**Carmen Iglesias Garzia**, Beran, abuztuaren 25ean, 86 urte.



**Agustin  
GOÑI BERGARA**

Arantzan, 2010eko uztailaren 21ean, 54 urterekin

*Huts haundia utzi diguzu  
amitz maite baitzaitugu.  
Minddeizelaitan pasatzen garenean,  
zure irudia hantxe izanen dugu.  
Bordaberrira joatean,  
bihotzean eramanen zaitugu.  
Lasai egon zaitex zeruan 'Ttio',  
zure familiak ondoan edukiko gaitu.*

**ZURE ILOBAK**



**Martin Jose  
TELLETXEA BALEZTENA**

Labaienen, 2009ko abuztuaren 19an

**I. URTEURRENA**

*Zure oroimenak  
indartzen gaitu  
ez agurrik, ez adiorik  
gero arte bakarrik.*

**ZURE FAMILIA**



**Maite  
RUIZ DE LOIZAGA**

—Idazlea—

Bera, 2010eko abuztuaren 18an

*Apartekoa, neurritzakoa,  
berezia eta izugarri jakintsua.  
Itzuli beti Berara.  
Mila esker hain jarraitzaile  
sutsua izateagatik.*

**PEPI ETA MARIITA**

24 urterekin hartu zuen lehen aldiz sega Jon Kanflankak (Leitza, 1980). Eta prestakuntza haundia eskatzen duen kirola izan arren, ez du uzteko asmorik. Are gehiago, Euskadiko

Txapelketan hirugarren (2009an) eta bigarren postuak (2010ean) lortu ondotik, argi du txapela duela helburu. Segaren etorkizuna «txarra» delakoan dago, eta «gustatu egin behar

dela». Baina berak garbi du: gustatzen zaio, eta badu segitzeko asmoa. Momentu honetan, atsedendian egon arren, abendutik aurrera hasiko da entrenamenduetan serio.

Jon KANFLANKA | Leitzako segalaria

# «Urte osoan entrenatu behar da, saio bakarra edo batere ez egiteko»

G. PIKABEA | LEITZA

Sekula hartu gabea zen sega eskuan, baina besteei begira ari zela, gustatu, eta ikasteko grina sartu zitzaion Jon Kanflankaleitzarrari. Segan ibilitako lehengusua bat zuela-eta, hari eskatu zion laguntza, eta urte hartantxe hasi zen txapelketetan parte hartzen, 24 urterekin. Sei urte pasatu dira geroztik, eta arian ari, Euskal Herriko segalari onenetarikoan artean dago gaur egun. Emaitzek erakusten dute hori. Uztailean, Euskadiko Sega Txapelketan bigarren postua eskuratu zuen, eta abuztuaren jokatu zen Nafarroako Txapelketan, berriz, bigarrena. Lau aldiz izan da Nafarroako txapeldu-norde: 2005ean, 2006an, 2007an eta 2010ean –2008an eta 2009an ez zen egin–. Eta Euskadikoan hirugarren gelditu zen lehengo urtean. Iaz hirugarren geldituta, eta aurten bigarren izanda, «heldu den urtean txapela tokatzen da», esan digu Kanflankak umorez. Lehenbiziko postu horietan ibiltzeak aurrera egiteko gogoia ematen diola ere aitortu digu: «gero eta hobeto ari naiz eta sega bati beharko dugu».

Euskal Herritik kanpo ere aritua da leitzarra segan. Austrian jokatu zen Europako Txapelketetan parte hartu zuen, baina



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Jon Kanflanka uztailean jokatu zen Euskadiko Sega Txapelketako finalean.

ordukoaz ez du hain orioztapen onik: «han gaizki aritu ginen. Oso maila haundia dago han, eta haiekin ez dago deusegiterik», dio.

## FISIKOA, TEKNIKA ETA ERREMINTA ONA

Segan behar bezala aritzeko behar diren ezaugarriak horietatik diralakoan dago Kanflankak: «fisikoa, teknika eta erreminta ona». Hirurek edukitzen saiatzen dela kontatu digu, baina horretarako, noski, lan asko egin behar.

## TALDEKO LANA

«Sega ez da bakarkako kirola. Belarra biltzen dutenak, zorroztaileak, segalariak... Azken finean, taldean egiten da. Txapela bati bakarrik ematen zaio, baina gehiago beharko lirateke»

Segarako hainbat modalitate dauden arren, leitzarra «betikoan» aritzen da, kilokoan, alegia. Denborajakinean zeinek kilo gehien ebakitzea izaten da lana. Eta horretarako, hemengo eta Austriako segak erabiltzen omen ditu. Segan gustura aritzeko belarraren ezaugarriak, berriz, hauek: «belarra berde-berdea izatea eta zola onekoa», adierazi digu.

Segalarien lanaz ari garela, nabarmendu nahi izan duen beste ezaugarria «taldelana» izan

da. «Ez da bakarkako kirola. Belarra biltzen dutenak, zorroztaileak, segalariak... Azken finean, taldean egiten da. Txapela bati bakarrik ematen zaio, baina gehiago beharko lirateke», azaldu digu.

## ENTRENAMENDU ASKO, BAINA SAIO GUTXI

Kanflankaren irudiko, kirol «sakrifikatua» da segalarien lana, eta urte osoko prestaketa eskatzen duena. Eta halaxe egiten du berak ere: «Abenduan hasten naiz prestatzen, eta astean bost entrenamendu egiten ditut, gimnasioa, mendia eta korrika tartekatuz. Eta udan, segan hasten naiz». Areso eta Leitza inguruko belardiak ebakitzen aritzen da horretarako. Baina hortaz aparte, zaindu ere egiten da leitzarra: «janari garbia jaten dut eta parrandarik ez». Eta hori gutzia urtean saio bakan batzuk egiteko: «urte osoan entrenatu behar da eta igual saio bakarra edo batere ez urte osoan. Gustatu egin behar da».

Baina gustuko tokian maldarik ez: «niri gustatu egiten zait eta segitu egiten dut». Helburua ere argia du: «txapela lortu nahi dut», dio. Ea bada, hurrengo urtean, bere Euskadiko laugarren finalean, baduen ametsa egi bihurtzeko aukera.



MENDIA → ARESOKO PLAZATIK ABIATUKO DA

# Igande honetan egingen da Aresoko Mendi Martxaren hirugarren edizioa

26 kilometroko ibilbidea egin beharko dute mendizaleek

TTIPI-TTAPA | ARESO

Aurten hirugarren aldiz, Aresoko Mendi Martxa egingen da igande honetan, irailak 5. Aurreko urteetan bezala, Aresoko plazan hasi eta akituko da eta mendizaleek 26 kilometro eta 1.200 metroko desnibela dituen itzulia egin beharko dute. Bitarte horretan, Ulizar, Urkiza, Pagozelai eta Lau Mugarietan (Guratz) barna pasako dira. Mendi martxaren iraupena lau edo bost ordukoa da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko martxan, mendizaleak plazara helmugaratzen.

Goizean, 08:00etan emanen zaio hasiera martxari, eta izen-emaitea, egun berean egite-

kotan 07:00etatik 07:45-era egin beharko da. Aurretik ere izan da auktorea, baina asteazkenean,

irailak 1, bukatzeko azen. Izen-ematea 5 euro kostako da aurretik, eta egun berean 8 euro.

HERRI KIROLAK → ARRAIOZEN ETA LEITZAN

## Nafarroako eta Euskal Herriko hiru txapelketa erabakiko dira asteburuan

Arpana, aizkora eta txinga txapelketak izanen dira

TTIPI-TTAPA | ARRAIOZ/LEITZA

Herri kirolen hiru txapelketa jokatu dira asteburuan eskualdean: Arraiozen eta Leitzan.

Alde batetik, **Nafarroako Emakumezkoen Arpana Txapelketa** egingen da larunbatean, irailak 4, Arraiozen, 19:00etatik aitzinera. Hiru bikotek hartuko dute parte: Itziar Nuñez eta Ana Lopez (Lezaun); Nerea Sorondo eta Amaia Gartzia (Bera) eta Susana Sanchez (Berrio-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eneko Saralegi leitzarra Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketan ariko da.

zar) eta Ainara Urriza (Eraso). Etzanda paratutako 45 ontzako enborrari 10 korte eman beharko dizkiote.

Leitzako Taloaren Egunean, bertzelde, 12:00etan hasita, **Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa** eta **Nafarroako Gizo-**

**nezkoen Txinga Txapelketa** jokatuko dira.

Aizkora saioan, Eneko Saralegi (Leitza), Eneko Otaño (Gipuzkoa), Eloy Corchero (Araba) eta Gaizka Lopez (Araba) ariko dira eta 45 ontzako lau enbor eta bi kanaerdiko ebaki beharko dituzte.

Txingetan, berriz, Miguel Angel Sukuntza (Leitza), Imanol Martin (Berriozar) eta Simon Tomas Callaghan (Mertauten) ariko dira. 50 kiloko txingak esku banean dituztela, ahalik eta plaza-28 metroko-gehien egin beharko dituzte.

DATUA

280

MENDIZALE

bildu zituen joan den urteko Mendi Itzuliak, eta aurrekoak 100 lagun inguru.

Lasterketaren ondoren, kirol materiala zozketa dute antolatzaileek, baina horrekin batera, jatekoa, edatekoa eta opariak ere izanen dira.

Informazio gehiagorako: 948 604545; [kirolmank@gmail.com](mailto:kirolmank@gmail.com); [www.mendinavarra.com](http://www.mendinavarra.com) edo [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org).



LAXOA → BAZTAN-ERREKAKO XXXI. TXAPELKETA

# Herri bereko bi talderen arteko finalean Irurita B nagusitu da

Hirugarren Doneztebe eta laugarren Oiz gelditu dira

## TTIPI-TTAPA | OIZ

Baztan-Errekako XX-XI Laxoa Txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 1ean Oizen eta Irurita Bk 9 eta 6 irabazi zion Irurita Ari, final gogor baten ondotik. Joseba Urtasun, txapel-dunen sakalaria izendatu zuten finaleko jokalaria onena eta Mikel Eizagirreren saria eraman zuen. Berekin batera, Guillermo Etxenike numeroa eta Jesus Etxenike eta Xabier Ripa laurdenak aritu ziren talde txapeldunean. Azpitxapeldun izan zen Irurita A taldean, berriz, Jorge Azkarate sakalaria, Miguel Bidegain numeroa eta Igor Urrutia eta Iñaki Etxandi numeroak aritu ziren. Alberto San Miguel Oizko alkatea, Txuma Prim iruritarra eta Juan Mari Ar-



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Goitiko argazkian, ezker-eskuin: epaileak, Irurita Bko txapeldunak eta Irurita Ako azpitxapeldunak. Behean, Jorge Azkarate Irurita Ako sakalaria.

tazkoz doneztebarra izan ziren epaile eta Oizko Joaquin Zia aritu zen marrak zaintzen.

Tiburtzio Arraztoak azaldu zuenez, lehen aldiz izan zen Iruritako bi taldek elkarren kontra jokatzeko zutela finalean, baina herri bereko taldeen arteko finalak izan dira lehen ere. Ze-

hazki, doneztebarren arteko hiru final izan dira. Arraztoak txapelketaren balorazio ona egin zuen: «Balorazioa egiten ahal badugu seinale ona da, duela 31 urte hasi ginean modalitatea mantentzea baitzen gure helburua. Heldu den urtean Doneztebeko bertze bi talde izanen ditugu».

Hirugarren postura-ko norgehiagokan, bertalde, Doneztebe Ak 9 eta 7 irabazi zion Oiz Bri. Donezteberekin Santi Mindegia, Pascual Bertiz, Jokin Arraztoa eta Koldo Legarra aritu ziren eta Oizekin Jokin Zirenda, Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Jose Agustin Mindegia.

## TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA

DATUA

7

**TXAPEL**  
lortu ditu guztira  
Iruritak. Doneztebek 17  
ditu; Oizek 4 eta  
Arraiozek 3.



HERRI KIROLA → AIZKORA JIALDIA SUNBILLAN

# Nazabal eta Etxeberriarentzat izan da IX. Ramon Latasa Saria

Gazte mailan, Rekondo eta Mugertza izan ziren garaile

TTIPI-TTAPA | SUNBILLA

Floren Nazabal eta Felix Etxeberria nagusitu ziren abuztuaren 8an Sunbillan jokatu-tako IX. Ramon Latasa Sarian. Lan guziak osatzeko 31 minutu eta 40 segundu behar izan zituzten. Bigarren Juan Jose Lopez eta Angel Arrospide izan ziren (32:30) eta hirugarren Donato Larretxea eta Mikel Mindegia (35:37).

Lehen proban bikoteek bi kanaerdiko moztu behar zituzten, aizkolari bakoitzak bana. Nazabal eta Etxeberriak



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ramon Latasa sarian parte hartu zuten kiroolariak, abuztuaren 8an.

1.39 behar izan zuten, Larretxea eta Mindegia 01:41 eta Lopez eta Arrospidek 01:52. Bigarren lanean, zutik jarritako kanaerdikoa eta etzanda jarritako bi 45 ontzako enbor izan zi-

tuzten mozteko. Lopez eta Arrospide ibili ziren bizkorren (03:18), Nazabal eta Etxeberria bigarren (03:19) eta Larretxea eta Mindegia gero (03:21). Hirugarren proba bakarkakoa izan zen

eta lau kanerdiko moztu behar izan zituzten. Nazabal izan zen bizkorrena (06:06), ondotik Lopez (06:44), Arrospide (07:17), Etxeberria (07:31), Larretxea (07:49) eta Mindegia (08:25).

Hondarreko lanean, bikote bakoitzak lau kanaerdiko eta lau 60 ontzako moztu behar zituen, txanda librean. Nazabal eta Etxeberria nagusitu ziren (13:05); Lopez eta Arrospide (13:19) eta Larretxea eta Mindegia (14:21) sailkatu ziren ondotik.

GAZTEETAN MUGERTZA ETA REKONDO NAGUSI

Aizkolari gazteei zuzendutako txapelketaren laugarren edizioan, Jon Rekondo leitzarra eta Ugaitz Mugertza nagusitu ziren, (18:17); Oihan Larretxea berratarra eta Aitzol Atutxa izan ziren bigarren (19:46) eta hirugarren Ander Erasun aurtiztarra eta Joseba Otaegi (20:21).

HERRI KIROLA → ETXALARREN JOKATU ZEN TXAPELKETA ABUZTUAREN 15EAN

## 2, 3 eta 7. postuak eskuratu dituzte igantziarrek Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketan

Txapelarengandik altxaldi batera gelditu da Iñaki Bereau

TTIPI-TTAPA | ETXALAR

Abuztuaren 15ean jokatu zen Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketa Etxalarren eta parte hartu zuten 11 kirola-

riek 45 kiloko lasto fardoa ahalik eta gehien altxatu behar izan zuten bi minutuko denboran. Txapela Bizkaira joan zen, Jose Martin Bustinza *Tubi* (Dima, Bizkaia) nagusitu baitzen 23 altxaldi egin ondotik.

Baina bigarren eta hirugarren postuak Igantzin gelditu ziren: Iñaki Bereauk 22 jasoaldi egin

zituen eta Xabi Seinek, berriz, 21. Denboraz kanpoko 2:01.42ean egin zuen. Karlos Sein igantziarra ere aritu zen lehiaran, eta honek 18 altxaldi egin zituen.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ezkerretik hasita, Iñaki Bereau, Xabi Sein eta Karlos Sein. Hurrenez hurren, 2., 3. eta 7. gelditu dira.

### Zazpi Herrialdeen Arteko 22. Kirol Txapelketa irailaren 11n Hendaian

Euskal Herrian egiten den herri kirol txapelketarik haundiena Hendaian (Lapurdi) jokatu da irailaren 11n. Aurten ere eskualdeko hainbat kirolarik parte hartuko du: txokor biltzen Fernando Etxegarai (Bera); ingude altxatzen Joakin Aiora (Ituren); lasto altxatzen Xabi Sein (Igantzi); harri-altxatzen Unai Bertiz (Sunbilla); txinga eramaten (igandean Leitzan jokatu den Nafarroako Txapelketan irabazten duena); orga jokoan Joseba Petrirena (Bera) eta aizkoran Donato Larretxea (Arantza).



## irailak 2 - irailak 15

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Mendia



ARESO | 2010.09.05

**III. Mendi Martxa Areso inguruak ezagutzeko**

Azken bi urteotan bezala, aurtan ere 26 kilometro eta 1.200 metroko desnibela dituen mendi martxa prestatu dute Areson. 08:00etan abiatuko da.

## Ospakizunak




LEITZA | 2010.09.05

**Taloaren eguna eta Talo Lehiaketa**

Duela 5 urte abiatu zen ekimenak badu segidarik. Goizeko hamarretatik aurrera merkatua, Talo Lehiaketa eta Herri Kirol frogak izanen dira, besteak beste.

## Antzerkia



ZUGARRAMURDI | 2010.09.04

**1609ko gertaerak gogoan antzerkia**

1609ko «gertaera lazgarrien oroimenez», *Iduzkilo* antzerkia izanen da irailaren 4an leizeetan, 20:30ean. Akelarre Elkarteak antolatu du.

Kultur Taldeak antolatuta.

**Bestak**

ARRAIOZ

**Herriko bestak**

**Irailaren 3tik 6ra.**  
Xehetasun gehiago 524. alean.

ELBETE

**Gurutze Sainduaren bestak**

**Irailaren 10etik 14ra.**  
Xehetasunak 32. orrialdean.

ERATSUN

**Santa Leokadia bestak**

**Irailaren 8tik 12ra.**  
Xehetasunak 22. orrialdean.

LEGASA

**Santa Leokadia Eguna**

**Irailaren 4tik 5era.**  
Xehetasunak 27. orrialdean.

OIZ

**Bestak**

**Irailaren 3tik 8ra.**  
Xehetasun gehiago 20. orrialdean.

SARA

**Herriko bestak**

**Irailaren 11tik 15era.**  
Xehetasunak 38. orrialdean.

LESAKA

**Bittiriko bestak**

**Irailaren 10etik 12ra.**  
Xehetasunak 12. orrialdean.

DONEZTEBE

**Besta tikiak**

**Irailaren 17tik 19ra.**  
Xehetasunak 17. orrialdean.

**Antzerkiak**

ZUGARRAMURDI

**Iduzkilo antzerkia**

**Irailaren 4an** Iduzkilo-

**Erakusketak**

ELIZONDO

**Pirinioetako etxeak eta herriak**

**Irailaren 3tik 25era**  
Polo Gartziairen *Pirinioetako etxeak eta herriak* marrazki eta akuarela lanen margo erakusketa ikusgai izanen da Arizkunenea Kultur Etxean.

URDAZUBI

**Euskal pinturaren 50 urte erakusketa**

**2011ko urtarrilaren 2ra arte** Urdazubiko monastegiko klaustroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan ikusgai. Asteazkenetik ortziratera 14:00-18:30. Larunbat, igande, besta eta opor egunetan 11:00-19:00.

IRURITA

**Gorka Salmeronen argazki erakusketa**

**Urriaren 3ra arte** Gorka Salmeronen argazki erakusketa Olari jatetxean ikusgai. 10:00etatik lokala itxi arte.

ZUGARRAMURDI

**Margo erakusketa**

**Irailaren 14ra arte** Chantal Gombo eta Alain Sistiagaren margo erakusketa Sorginen Museoko hirugarren solairuan.

**Ospakizunak**

LEITZA

**Talo eguna**

**Irailaren 5ean** merkatua, lehiaketa, taloa egiten ikasteko tailerra eta herri kirol txapelketak (aizkolarari gazteak

eta txingak)... Xehetasunak 30. orrian.

LEITZA

**Nafarroako euskal dantza eguna**

**Irailaren 11n** Nafarroako euskal dantzari-entzuten topaketa eginen da arratsaldetik aurrera. Xehetasun gehiago 30. orrialdean.

BERA

**Dantzari Ttiki Eguna**

**Irailaren 18an** Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta Dantzari

Ttiki Eguna eginen da, aurtan XVI. aldiz.

SUNBILLA

**Ameriketan ibilitako euskal artzainen eguna**

**Irailaren 19an** Ameriketan ibilitako euskal artzainen eguna ospatuko da. Xehetasunak 16. orrian.

ITUREN

**Joaldunen Eguna**

**Irailaren 18an** Joaldunen Eguna eginen da joaldunek eta Ibintza

## PROPOSAMENA

SUNBILLA

**Ameriketan ibilitako artzainen besta irailaren 19an**

Egun osoko ospakizunak antolatu dituzte bere garaian Ameriketan artzain ibili ziren euskaldunak biltzeko. 700 bat lagun espero dituzte bazkarian, baina aitzinetik *highballa* zintzur bustitzea eta omenaldia ere izanen da artzaintzat. Lesakan, Elizondon, Alduden eta Auritzen ondolik, aurtan Sunbillaren txanda izanen da.





re antzerkia, 20:30ean leizeetan, Akelarre Elkarteak antolatuta. Sarrera: 8 euro.

## Ikuskizunak

ELIZONDO

**Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

**Irailaren 19an** Baztan Ikastolaren 40. urteurrenaren harira, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna Lur Aretoan, 17:00etan.

## Lehiaketak

LESAKA

**Beti Gazte elkartearen Argazki lehiaketa**

**Urriaren 30a arte** aurkez daitezke Beti Gazte antolatutako argazki lehiaketarako lanak.

SENPERE

**Besten inguruko argazki lehiaketa**

**Urriaren 31 arte** Herriko Etxeak argazki lehiaketa antolatu du eta aurtengo gaia bestak izanen dira. 300 euroko saria banatuko da.

## Kirola

ARESO

**Aresoko Mendi Martxa**

**Irailaren 5ean** Aresoko Mendi Martxaren hirugarren edizioa egingen da. Xehetasunak 43. orrialdean.

IGANTZI


**Mendi Bizikleta Ibilaldia**

**Irailaren 5ean** Biltoki elkarteak antolatuta Mendi Bizikleta Ibilaldia egingen da. Xehetasunak 14. orrialdean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Walter Benjaminen aingerua Gernikako bonbardaketatik

**IGNACIO AIESTARAN**

Elkar, 2010

**T**otalitarismoaren gerra izan da XX. mendeko ikurretako bat. Liburu honetan irakurleak, lehenengo aldiz, logika belizista bat aurkituko du, XX. mende hasieran indar handia izan zuena. 20ko eta 30ko hamarkadetan Espainiak eta Italiak bonbardaketak erabili zituzten Afrikako kolonietan. Espainiako Gerran areagotu egin zen estrategia; Otxandio, Durango eta Gernika proba-lekuak izan ziren, eta penintsulako leku askotan zabaldu zen suntsiketara, Mussolinik eta Hitlerrek lagundurik. Proba horiek ohiko bilakatu ziren Bigarren Mundu Gerran: Dresden, Coventry, Hamburg, Hiroshima eta Nagasaki dira historia beltz honetako markak. Bonbardaketetan garai hartako arma guztiak erabili ziren: hegazkinak, gasa, lehergailuak... arrazismoz eta xenofobiaz beteriko ideologiatik gerra totala justifikatu nahian. Intelektual asko izan ziren estrategia horren lekuko. Datuak, historia eta literatura mataza original batean biltzen dira liburuan, garai hartako kronika eta eragina sakon eta zorrotz azalduz.

### Musika



Reacciona!!!

**KAOTIKO**

Baga-biga, 2010

**K**aotiko taldeak hamar urte daramatza musikaren munduan izena egiten, baina 2011n hamar urte beteko ditu lehen diskoa argitaratu zuenetik. 2000ko uztailan sortu zen Agurainen, Kaos Etiliko desegin zenean. Kaotikoren seigarren diskoak Reacciona! izenburua du eta lau ezaugarri ditu: ahots sendo eta berezia, gitarra arinak eta sarkorak, oinarri erritmiko boteretsua eta zapaltzailea, koruen handitasuna eta leherkortasuna. Kaotiko taldearen musikak oparotasuna eskaintzen du eta ez du gabezi punturik erakusten. Abestiz abesti borobildutako lana, egun bizi dugun miseria intelektual eta kulturalari hortzak erakusten dizkiona. Kaotiko taldeak bere punk-rock makineria zeharo olioztatuturik du, txukuna eta distiraz gainezka. Kaotiko taldearen Reacciona! diskoa punkaren abiadurarekin hornitutako rock zaplasteko ederra da. Kaotiko taldearen seigarren diskoak, Aguraingo etxetik, sendotasuna eta bizkortasuna erakusten dizkigu.

### Internet



Nafarroako Kontsumitzaile Elkarteak

**WWW.CONSUMIDORES IRACHE.COM**

**I**ratxe Nafarroako Kontsumitzaile elkarteak, 1979az geroztik kontsumitzaileei, erlazio kontraktualetako alde ahul eta desbabestuenari, informazio eta babesa ematen die, eta 2003an herri-onurakotzat hartua izan zen. Gaur egun Nafarroan zehar banatutako 66 bulegotan ematen du zerbitzua. Kontsumitzaile antolatua kontsumitzailearen defentsarik onena delako, osasuna, etxebizitza, herri-garraioaren alorrean, etab. egiten du lan. Bere informazioa Internet-en bidez ere hedatzen du. Bertzeak bertze, elkartearen eta bere zerbitzuaren berri emateaz gain, albisteak, soluzioa emandako aferak, inkesta, bideoak eta hainbat jakingarri topa daitezke. Elkarteko kide egiteko aukera eta alde aurreko hitzordua eskatzeko ere eskaintzen du webgune osatuak. Pena bakarra, informazio hori euskaraz eskuratzeko modurik ez duela eskaintzen.

## Nire aukera



**Javier PRUAÑO**  
Elizondoko telebista kamera

**«Oporretarako barnealdea, mendia eta bizikleta gustatzen zaizkit»**

**T**elebista kamerarekin ez ezik, zinema munduan ere bere urratsak eman ditu Javier Pruañok. Astea Iruñean ematen duenez, «asteburuan ez gara Elizondotik mugitzen». Asti librea soberan ere ez duenez, denbora duenean «semea hartu eta Baztanen barna bizikletaz ibiltzea edo mendira ateratzea da gehien gustatzen zaidana». Oporretan ere telefonotik zintzilik egoten da, baina aukeran «barnealdea, mendia eta bizikleta» gustatzen zaizkio. Orain artean gehien gustatu zaion bidaia, «erdi oporretan erdi lanean Afrikara joan gine-nekoa» izan da. «Mozanbiken izan ginen-dio-, Hego Afrikarekin mugan. Arazoak dituzte, baina gehien inpaktatu ninduen kolorea izan zen, ez nuen inoiz halakorik ikusi. Jendea hagitzezberdina da, naturalak dira eta malizia guttiago daukate». Egun osoa telebista eta zinema munduan murgildua badago ere, «oraindik zinea ikustea gustatzen zait, pentsatzekoa ez dena, abenturakoa...».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**DONEZTEBE.** Eguzkier karrikan-tailer inguru-, 2. eskuko kalefakaziodun pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela eta trastelekua. 27.000.000 Pta. (163.000 euro). Garajea aukeran. ☎650 264156.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 gela, bainugela, sukaldia, egongela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala eta berogailua. ☎657 715243.

**IRUN.** Colon aparkalekutik hurbil etxebizitza salgai. Bikote gazteentzat egokia. 180.000 euro (30 milioi pzt). ☎637 559152.

**DONEZTEBE.** Rosa Seminarion, 3. solairuan dagoen pisua salgai. Eskailera batzuen bidez, trastelekura komunikatua. 3 logela eta 2 komun. Mobleztatua. ☎679 109423.

**ELIZONDO.** Apartamentua salgai 'Etxe berdean' (Txispasen parean). 2 logela, 2 bainugela, sukaldia eta egongela. Mobleztatua. Trastelekua eta garaje plaza. Aukera paregabea. ☎948 580656 (arratsaldez).

**ETXALAR.** Lizaietako paraje zaharberritzeko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661121540.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA  
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**BERA.** Itzea karrikan pisua salgai. 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 bainugela, igogailua. Eguzkitsua. Dena berritua. ☎699 634554.

**ELIZONDO.** 70 m<sup>2</sup>ko babes ofizialeko pisua salgai. Bi logela, egoera onean. Trastelekuarekin. Prezio interesgarria eta negoziagarria. ☎690 694050/ 639 050188.

**ELGORRIAGA.** Etxebizitza adosatua salgai. 3 solairu, 50 m<sup>2</sup>ko lorategia eta garajea. ☎609 701035 (deitu 20:00etatik 22:00etara).

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**IRURITA.** Etxea errentan emateko, 3 logela eta garajearekin. ☎659 764375.

**IRUÑEA.** Mendebaldea auzoan pisua errentan emanen nuke, hiru logela eta bi komunekin. Uni-

bertsitatetik eta ospitalethurbil. ☎646674406/ 628 581031.

**BERA.** Agerra auzoan pisu mobleztatua errentan emateko. ☎948 630421.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**MALERREKA EDO INGURUAN.** Familia batek baserria edo etxean errentan hartuko luke. ☎617 543034.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
salgai

**BERA.** Herri erdian (Kanttonberri, 10) 78 m<sup>2</sup>ko bajera komertziala salgai. ☎627 914271.

**BERA.** Toki Ona Institutuaren ondoan, 80 m<sup>2</sup>ko bajera salgai. Etxebizitza eraikitzeko oaukerarekin eta ondoko lur eremuarekin batera. Errentan emateko aukera ere ba-

dago. Prezio negoziagarria. ☎664 711853 (20:00etatik aitzinera).

**LANA**  
eskariak

**BAZTAN.** Bertako neska bat ordu batzuk lan egiteko prest dago. Zerbitzatzen, garbitasunak, bazkariak... Badaki frantsesa. ☎948 920024.

**LANA**  
eskaintzak

**Teleoperadora** bat behar da lanerako. Euskaraz jakitea eta lanerako gaitasuna izatea hartuko dira kontuan. Ongi ordainduko da. ☎699 382673.

**MOTORRAK**  
salgai

**Mercedes c220cdi**, 150 CV sport coupe salgai,

2006koa, 75.000km. Iruñeko Mercedes etxean errosia eta errebisio guztiak bertan eginak. Egoera ezin hobean. ☎699 122815 / 600 699266.



**Golf TDI** salgai, egoera onean. ☎650 064912.



**Renault Kangoo** luzea 1.5 dCi 65DS salgai. 28.000 km. 2005ekoa. Egoera oso onean. Bete garajea gordea, rebisioak Renaulten eginak. 6.000 euro. ☎679 228189.

**Montesa 310 Evasion** motoa salgai. Eserleku luzea, 2 pertsonentzako. ITV pasatua. Egoera onean. 700 euro. ☎607 446925.



**Yamaha YBR** 125eko motoa salgai. 2005 urtekoa. Extrekin. 1.200 euro. ☎619 960122.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(abuztuaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 37,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,255 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,410€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,80 (=)

**1.koa** 3,49 (=)

**2.koa** 2,96 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,87 (=)

**1.koa** 3,60 (=)

**2.koa** 3,13 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,70/2,80  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,30/8,00  
8-10 kilokoak: 6,20/6,50



**Xsara Picasso 2.0 HDI** salgai. 4.700 euro. Egoera onean. ☎686 018478.

**Kamioia eta Transportes** Bildasoa **zona motzeko plaza** salgai. ☎618 962566 (Altuna).


**MOTORRAK**  
tailerrak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**


**ANIMALIAK**  
oparitu

**Zakurkumea** oparitzeko. Atta ehiztari ona. ☎679 892622.



**ANIMALIAK**  
salgai

**Bi urteko astoa** umearekin salgai. Arra hartua. Polita. ☎948 630004.

  
**OSOKO BILKURAREN AKORDIOA**  
Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2010eko uztailaren 29koa: Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakiatua, A-292 Unitate asistematikoa, hasiera batez onestea.  
Espediente hau jendeurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarria NAOan argitaratu ematen denetik.  
  
Bera, 2010.08.25  
ALKATEA Josu Iratzoki Agirre

Bi **asto eme** bere bi **astokumeekin** salgai. ☎627 735113.

Ongarria hedatzeko **karro trakzionatua** salgai. Agria 9.900 Z-entzat egokitua. Egoera onean. ☎689 042282.

**DENETARIK**  
salerosketak

1,90 metroko **arkazi pike-teak** salgai. ☎948 634120.

Bigarren eskuko **trikitixa erosiko** nuke. Lau ahotsekoa. Si bemoleko tonuan dagoena eta posible bada ZERO-SETTE markakoa. ☎600 028290.



**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**BERA.** Abuztuaren 6an Altzateko Plazan edo Altzate karrikan giltzak galdu ditut. ☎605 769067.

**LESAKA.** Opel markako autoaren giltzak aurkitu dira. ☎948 637030.

**LESAKA.** Giltza multzo bat aurkitu da. ☎948 637030.

**GOIZUETA.** Emakumezkoen erloju bat aurkitu da festetan, frontoi ondoan. ☎948 514006.

**urtebetetzeak**



Elizondoko **IBAI GARAIKOETXEA ARRETXEAK** 8 urte beteko ditu irailaren 5ean. Zorionak gure korrikalariari! Ongi pasa eguna eta segi horrela txapeldun! Muxu handi bat ama, aita eta Ugaitzen partetik.




Zorionak **JUNE BIDARTE HUARTE**ri. 2 urte bete ditu abuztuaren 30ean. Muxuak aita eta amaren partetik.



Donamariko **EGUZKI** eta **ALAITZ IRIGOIEN JUANENAK** urteak bete dituzte abuztuaren 9an eta 27an. Zorionak bi sorgin hauei familia guztiaren partetik eta muxu handi bana. Espero dugu egun ona pasatu izana. Zorionak!



**ARKAITZ LOIARTE OLANO** leiztarak abuztuaren 29an urteak bete ditu. Zorionak hirugarren urtebetetzean familiaren partetik. Muxuxus.



**ENEKO IRIARTE ITURZAETA** arizkundarrak urteak beteko ditu irailaren 14an. Aunitz urtez eta muxu handi bat etxeko guzien partetik.



Leiztako **INHAR ALTADILL LAZKANOK** 3 urte beteko ditu irailaren 11n. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Aresoko **ITORTZEK** urteak beteko ditu irailaren 6an. Zorionak eta 4 muxu handi Aresoko familia guztiaren eta amoiaren partetik.



Zorionak **ITORTZ!** Ea merienda goxo batera gonbidatzen gaituzun. Muxuak!

  
**t tipi-ttapa**  
FUNDAZIOAK

**zure laguntza behar du**  
eginzazu t tipi-ttaparen alde  
proiektu zenbakia: 15.996

**Dagoeneko 780 LAGUNEK** egin dute gure alde  
**Eskerrik asko**  
Zure laguntza eskertzeko, poltsa eder hau izanen duzu opari.

Esku ezazu t tipi-ttaparen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu t tipi-ttapara 2010eko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**



# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



**MADDI SAN SEBASTIAN** ARRAIZAK 6 urte bete ditu abuztuaren 13an. Zorionak eta aunitz urtez familia guztiaren partetik.



**AROA ZUBIRI ARBURUAK** abuztuaren 8an 10 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat zure familiaren partetik.



**BEGONA OLHAGARAY ALEMAN** Zugarramurdiko ak 42 urte bete ditu uztailearen 22an. Zorionak familiaren partetik.



**Berako GEXAN SAN JUAN AROZENAK** urtea bete du uztailearen 30ean. Zorionak familia guztiaren partetik.



**Berako AIALA SAN JUAN AROZENAK** 4 urte bete ditu abuztuaren 12an. Zorionak familia guztiaren partetik.



**Berako ENAITZ eta AIALAK** 4 urte bete dituzte abuztuaren 18an eta 12an. Eta JUNE eta GEXANek urtea abuztuaren 22an eta uztailearen 30ean. Zorionak laguneren partetik.




**JASONE eta GOIZEDER MINDEGIA BENITO** eratsundarrek abuztuaren 4an eta 21ean 11 eta 13 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana, ama, aita eta Ituren, Sarriguren eta Eratsungo familien partetik, bereziki Amagoia, Eneko eta Iraideren partetik.



**Arantzako UXUE ALUSTIZA IPARRAGIRREK** 7 urte bete ditu abuztuaren 14an. Zorionak familia osoaren eta bereziki Bihotzen partetik. Muxutxo handi bat.




**EIDER INDABURU LOIDI** etxalartarrak 5 urte bete ditu abuztuaren 18an. Aunitz urtez familiaren partetik.



**MIKEL INDABURU LOIDI** etxalartarrak 9 urte beteko ditu irailaren 17an. Aunitz urtez familiaren partetik.



**Gazteluko JOSEBA TELLETXEAK** 6 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak eta muxu bat familiaren eta bereziki Mikel anaiaren partetik.



**ENARA SANTESTEBAN** zubiarrak 4 urte bete ditu abuztuaren 12an. Zorionak ttattarra.



**IKER EZKURRA NAVARRO** arraioztarrak abuztuaren 5ean 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik eta bereziki Beñaten partetik.




**Zozaiako LOREA eta AMETS AGIRRE SARRATEA** anai-arrebei zorionak eta muxu haundi bantia Manayin partetik. LOREAK abuztuaren 15ean 6 urte eta AMETSEK abuztuaren 28an 2 urte bete dituzte.



**ANDREA DE RUEDA** doneztebarrak 10 urte beteko ditu irailaren 5ean. Gure printzesa maitagarriari 10 muxu haundi bere familiaren partetik. Segi beti bezain alai eta zoriontsu.




**IZARO CARRILLO FAGOAGA** irundarrak abuztuaren 6an 2 urte bete ditu. Muxu bat Eider ahizpa, Aiora, Malen eta familiaren partetik.



**LIBE TAPIA MURTUBERRRIA** lesakarrak abuztuaren 29an bere lehendabiziko urtea bete du. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**URKI ARAGON GARROTE** zubiarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 20an. Zorionak Urki! Muxu bat etxekoan partetik, bereziki Aritz, aita eta amaren partetik.



**Zubieta URKI** 2 urte bete ditu abuztuaren 20an. Zorionak sagutxu! Muxu pila familia guztiaren partetik.



**JUNE MAIZA ZABALETA eta HAIZEA GALZAGORRI ZABALETAK** 1 eta 2 urte beteko dituzte abuztuaren 24an eta irailaren 6an. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik eta bereziki Leitzeko attun-amona eta Markelen partetik.




**LEXURI AROTZENA PORTU** lesakarrak irailaren 15ean 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta lau muxu haundi familia osoaren eta bereziki Orti anaiaren partetik.



**Zorionak Lesakako ENAUT ARBURUA** PORTURI, irailaren 8an eginen duen urtebetetzean, bere Arantzako familiaren partetik. Muxu haundi bat, amaxi Joxepa.



**OLATZ PAGOLA eta JULENE GOIA** Berako bi sorgin hauek abuztuaren 26an eta 28an 4 eta 3 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu bana familiaren partetik.



**JULENE GOIA GAZTIA** beratarak 3 urte bete ditu abuztuaren 28an. Zorionak printzesa eta muxu bat familia guztiaren partetik. Aupa Reala!



**Mugairiko IRAIDEK** uztailearen 25ean 5 urte bete zituen. Zorionak eta muxu bat gure printzetsitari aitaxi, ama eta berrideen partetik.




**ALAIN ZELAIETA BERASATEGIK** irailaren 3an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**Zubieta EGOI FAGOAGA BABAZEK** lehenengo urtea bete du abuztuaren 11n. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta bereziki Luaiaren partetik.



**EGOI FAGOAGA BABAZE** zubiatarak urtea bete du abuztuaren 11n. Zorionak pottolo eta muxu haundi bat Aurtiztik, bereziki Ekiñeren partetik.



**EGOI FAGOAGAK** urtea bete du. Muxu haundi bat Zubieta atautxi-amaxi eta izeba-osaben partetik.



**Zorionak SUNBILLA** irailaren 16an 6 urte beteko ditu. Ea zenbat opari biltzen dituzun! Sunbillako familia eta batez ere aita eta ama.



**Aunitz urtez hirukote!** Ailegatu da zuen eguna! Gustatzen argazkia? Aurten guapago zaudete? Jajaja! Zuen afariaren zain gelditzen gara. Muxu haundi bat! Kaxkarrak.



**JARE UBIRIA IRIONDO** lesakarrak 2 urte bete ditu irailaren 1ean. Zorionak nire printzesari. Muxu aunitz attatoren partetik.



**JARE UBIRIA IRIONDO** lesakarrak irailaren 1ean 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**OIER eta BEÑAT ERRO MUJIKAK** elizondarrek 8 urte beteko dituzte irailaren 5ean. Aunitz urtez aita, ama, arreba eta familia guztiaren partetik. Zorionak eta muxu haundi bat polittak!



**Elizondoko OIER eta BEÑAT ERRO MUJIKAK** irailaren 5ean 8 urte beteko dituzte. Aunitz urtez aita, ama, arreba eta familia guztiaren partetik. Zorionak eta muxu haundi bat polittak!



**Sunbillako XANTUX IRIARTE** IBARRAK irailaren 11n urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, baina bereziki bere lobak diren Iraide eta Garaineren partetik. Ongi pasa eguna osaba! Muxuk!



# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOKKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

523 ALEKO IRABAZLEAK

\* TTIPI SASKIA

Estibaliz Iparragirre | Arantza

\* ONIN ART KAMISETA

M<sup>a</sup> Carmen Irigoien | Doneztebe

\* IBAIZABAL 2 LIBURU

Francisco J. Portu | Lesaka

\* DONOSTIAKO AQUARIUMA 2 SARRERA

Jon Sansiñena | Etxalar

## ZOKKETAK

ttipi txarteldun guztien artean  
zokketatuko dira sari hauek



**KAMISETA 1  
ONDDO  
TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



**2 KAMISETA  
TXAPELA BURUAN ETA  
IBILI MUNDUAN**

## ZORIONAK

\* Hilabete bateko epea sariak biltzeko



**IKASTOLEN  
ELKARTEA  
ABRITE PORTAS**  
[www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)



**LOTEA  
MARTIKO**  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



**XABI ABURRÜZAGA  
MUSIKA CDa  
ELKAR**  
[www.elkar.com](http://www.elkar.com)



**2 SARRERA  
DONOSTIAKO  
AQUARIUMA**

## DESKONTUAK

**jaione** fundategia  
%10, 120tk gorako gutxian

**FOTO MENA**  
%10 deskontua kopia digitaletan

**kalafxa**  
%5, 10tk gorako gutxian

**Ostari optika**  
%10, 30tk gorako gutxian

**KATTALINGORRI**  
%10eko deskontua



italiano

brezhoneg

català

cheso

תירבע הפשה

Языковой  
русский

Norsk språk

سرائف نابز

سرائف

castellano

svensk

nglish

galego

euskara,  
hemengoa.

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**

Lesakako Matxinbeltzenea  
Tel. 948 637 796

bortziriak@ikanet.net

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**

Donezteben, Parrokia kaleko 1ean  
Tel. 948 451 555

malerreka@ikanet.net

**LEITZALDEKO EUSKALTEGIA**

Leitzako Udaletxean  
Tel. 948 610 776

leitza@ikanet.net

**MATRIKULA ZAITEZ** irailaren 30a baino lehen

euskara errazago egiten



**ika**

www.ikanet.net